




uk

91. zenbakia / 2005 abenduak 4

bertsolari txapelketa nagusia


05

Lekunberritik 05-10-09
Bilbora 05-12-18



Laguntzailea:

www.txapelketanagusia.com



«Abenduko eguna, argitu orduko iluna» Euskal esaera zaharra

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Gaztain saltzaileak. Asier Mentxaka.
7. LEHEN ETA ORAIN. Berangoko Intxaurraga.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
9. ERRETRATUA. Paco Castells. Asier Mentxaka.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopelana 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Munduko janariak, Jose Mari Martinez.
26. ERREPORTAJEA. Elkartasuna, Unai Brea.
28. ARGAZKIA. Barinaxe elurpean, Jose Luis Diez.
30. BERBETAN. Kike Amonariz, U. B.
34. FOTOGRAFIA. Eraikitze lanak Uribe Kostan, Asier Mentxaka.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. *Olentzero* pelikula.
43. MUSIKA. Discos Crudos zigilua. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Unai Elorriaga. Liburuen erreseinak.

EUSKARAZ

46. ELKARRIZKETA. Mikel Clemente. Unai Brea.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardaoaren gaineko lezioa. Nora jan? Adibidez, Usategi kafetegian.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Josebux Etxebarriaren agurra, 1952.
54. AITORMENAK. Iñigo Lopez de Alda.

Azaleko argazkia: Asier Mentxaka (Leioa)



30 Kike Amonariz

Berbetan

Txiste kontalaria, aktorea, soziolinguistikan aditua... Polifazetikoa da Kike deskriba dezakeen adjetiborik egokiena.



14 Rakel Olea



34 Eraikitze lanetan



46 Mikel Clemente



12 Monica Ortega



54 Iñigo Lopez de Alda

UK aldizkariak zure dirulaguntza behar du

gure kontu zenbakia (Boluntzarreta)

2095 0022 00 91- 0248367- 6

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kubxa 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILEAK: Unai Bresa, Bittor Egunola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezaga, Esti Ezkerra, Itxaso Arana, Gaizka Escudero, Ainhoa Lores, Amaia Arriaga, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaideak da






--











gugeu

Indarberritu

Gaiean daukagu euskal kulturaren erakusleiho nagusiarekin urteroko hitzordua: Durangoko Azoka. Aurten 40 urte beteko dituen azokak zenbait kritika jasotzen baditu ere, aldez aurretik guk argi esan behar dugu Durangoko Azoka asko gustatzen zaigula, txalogarria deritzogula Gerediaga Kultur Elkartearen ekimen honi. Gainera, ederto pasatzen dugu han beti. Hizkuntza zahar honen alde han-hemenka sakabanatuta beharrean gabiltzan lagunok, urtean behin bada ere, elkar ikusteko eta elkarri animoak emoteko aukera izaten dugu Durangon. Berba bitan: urte akabuan minimotan edukitzen ditugun pilak atzera ere kargatzen ditugu azokan.

Pila horiek, hamabostean behin, aldizkari hau edukiz betetzen, diseinatzen, inprimatzen eta zuengana helarazten erretzen ditugu. Sarritan nekeak jota ibili arren, zertan gabiltzan ondo jakin ez arren, etorkizunik ete daukagun asmatu ezinik ibili arren, gure ahaleginak zentzurik ete daukan jakin ez arren, UK sortzen pilak gustura eta pozik gastatzen ditugula aitor dezakegu. Luxua da-eta euskararen munduan jardutea, are gehiago gure eskualdean izanik.


Horrela, Durangora joango gara indarberritzera. ⁴

UK-ko lantaldea

irakurleak


Zuon iritziak, eskaerak, proposamenak... garrantzitsuak dira guretzat. Harremanetarako: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

Goizero irakurri > **berria**



CARLOS ALBERTO ETA JOSE LUIS LOPEZ MOURE. ALGORTAKO GELTOKI PLAZA, 2005eko AZAROA

Gaztain saltzaileak / Ia hogeit urte daroaz Jose Luis Lopez Mourek (argazkian, eskuinean) gaztain erreak saltzen Getxon. Areetan ibilia da urte luzez behar honetan, baina orain dela lau urte Algortako plazara etorri eta hantxe hasi zen gogora iraganeko zaporeak dakarzkigun fruitu bero hau saltzen. Urriaren erdialdean paratzen du kioskoa plazan eta urtarillaren akabuan batu. Aprobetxa ezazue neguaren hotzari gaztainen zapore gozo eta beroaz aurre egiteko! ^m / Argazkia: **Asier Mentxaka**

BERANGOKO
40.
euskal liburu eta disko
AZOKA

© txelu angolia

2005eko abenduaren 7tik 11ra



Iraganez doa denbora* beti / BERANGOKO INTXORRAGA 2002-2005

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

euskara > Getxoko toponimia jasotzen duen CDaren aurkezpena

Lehenengo liburua argitaratu zuen Getxoko Euskara Zerbitzuak: *Getxoko leku izenak* (Sofia Suso eta Mikel Gorrotxategi). Orain, liburu horren edukiekin eta beste hainbatekin (argazkiak, jokoak...) CDa plazaratu berri du. Lan oparo hau azaroaren 17an Faduran aurkeztu zieten herriko euskaltzaleei Euskara Zerbitzukoek. Hitzorduak helburu bikoitza zeukan. Batetik, lan berria ezagutzera ematea, eta bestetik, urtean zehar han-hemenka sakabanatuta gabiltzan euskaltzaleak, sikera urtean behin bada ere, giro atseginean elkartzea. Eta argazkiok erakusten duten legez, ederto bete ziren helburuok. ^m



Makina bat euskaltzale bildu zen CDaren aurkezpenera

kirola > Galeako olatu erraldoian surf lehiaketa antolatu dute



Eguraldiak laguntzen duenean tamaina ikaragarriko olatuak egoten dira Galean. Gatxa da hara sartzea eta horregatik ontziz joaten dira hara olatu hau surfeatzera ausartzen diren kirolari apurrak. Orain, nazioarteko lehiaketa antolatu du han Euskal Herriko Surf Federazioak. Txapelketa zein egun zehatzetan izango den baldintza metereologikoez aginduko dute, baina abenduaren 3a eta urtarrilaren 15aren artean izango dela azaldu dute EHSFkoek. Izan ere, gutxienez lau metroko olatuak gura dituzte antolatzaileek lehiaketa egiteko. Lehia ikusgarria izango da, sariak besterik ikustea baino ez dago: olaturik handiena, olatuaren jaitsierarik erradikalena... Itsasoari ibili! ^m

Peio Etxebarria Galeako olatuan (Argazkia: Willy Uribe)



Sei urte daroaz Pacok Caritasen lan boluntarioa egiten

Paco Castells > Caritaseko kidea

Paco Castells, 48 urteko algortarra, kristaua. Bere auzoko parrokiaren bitartez ailegatu zen Caritaserara, *“orduna arte ardurua zeukanak utzi eta abadeak niri proposatu zidalako lekukoa hartzea”*. Baiezkoa emotea ez zen erabaki gatxegia izan Castellsentzat, ondo errotuta dauka-eta premiagaz dabilenari laguntzeko kontzientzia. Gaur egun, erakunde horren arduraduna da Bizkaiko seigarren Bikaritzan, guztiz lan boluntarioa. Baina hau dauka azken kurtsoa zeregin horretan *“Sei urte daroadaz, eta momentu honetan ez naiz ailegatzeko ailegatu beharreko leku guztietara; neure beharra ondo ez betetzeko, gurea dut beste baten esku utzi”*, dio penaz. Izan ere, gauzak asko aldatu dira Castells Caritasen hasi zenetik. Batetik, ez dauka horrenbeste denbora orain urte bi lantokian ordutegia aldatu ziotenetik; bestetik, zereginak biderkatu egin dira, emigrazioaren hazkundeak eraginda batez ere. Hala ere, Paco Castellsek ez du Caritas guztiz utziko: *“Elkartearen oinarrizko programagaz, hau da, harrenagaz, konprimio sendoa daukat”*. Eta aitortu digunez, harrera-lanek sortzen diote, hain zuzen, buru-hauste gehien: *“Egun batzuetan, etxera ailegatutakoan, lur jota egoten naiz, jende askoren arazoak dauzkat-eta buruan”*. Fedea, beti ere, bidean laguntzeko makulu ona da, baina Castellsen kasuan badauka riabardurarik: *“Ni ez naiz kristau ‘erraza’, eta Eleizarekiko kritiko diren zenbait elkartetan nabil. Caritasen nago nire kontzientziak agintzen didana egiten uzten didaten heinean. Hala ez balitz, GKE batean egongo nintzateke”*. ^m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Unai Brea**

II. Berdintasun Plana onartuta

Eusko Jauriaritzaren Berdintasun legeaz bat, eta **Getxoko emakume elkarte, andrazko, udal teknikari eta alderdi politikoen** partaidetzagaz onartu da 2006-2009 bitarteko plana

Andrazkoen eta Gizonezkoen II. Berdintasun Plana 10 helburu nagusik eta 43 asmo zehatzek osatzen dute, eta horiek erdiesteko Udaleko arlo guztien partaidetza eskatzen duten ia 150 ekintza proposatzen ditu.

Getxoko Udalak osatutako I. Berdintasun Planeko (1998-2002, orain arte luzatu bada ere) helburu asko bidean gelditu ziren. *“Udal teknikari askok bazegoenik ere ez zekiten”* adierazi du orain dela urte eta erditik hona Getxoko Udaleko Berdintasun teknikari den Idoia Eizmendik. Orain, oster, egitasmoa aurrera eroateko beren-beregi udal arduradun edo teknikari bat badagoenez II. Berdintasun Plana osatu dute (udal teknikari, arduradun eta alor guztiek daukate horren berri, eta denak dira partaide), eta horrez gainera, Planaren jarraipena egiteko batzordea hasieratik osatzekotan dabilta.

Plana osatzen duten ekintzen artean batzuk aipatzearren horra hor baten bat. Tratu txarrak jasaten dituzten andrazko-entzako abegi etxe berri bat egingo dute 2006ko udarako-edo, eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Iñaki Urkizak azaldu-takoaren arabera, horretara 200.000 euro bideratuko dituzte. Tratu txarren eta sexu eraso- salaketak jaso eta artatzeko Segurtasun Zerbitzu berezitua martxan ipintzeko asmoa ere badaukate. Gizarte Zerbitzuetako Larrialdietarako Protokoloa diseinatzeko zirriborroa egiten dabil-tza, eta hurrengo pausua erakunde-arte-



Abegi etxea Algortako Urgull kalean egongo da

ko protokoloa eratzea litzateke. Algortako Urgull kaleko kultur etxe ohian, emakumeen elkarteentzat zein elkarteetatik kan-pokoentzat Emakumeen Etxea lekutuko dute (2006-2007). Jabekuntza Eskola ere bertan izango da. Arrakasta handiagaz

«Datorren urteko udarako zabaldu gura dute andrazko-entzako abegi etxea»

urte bi bete ditu Jabekuntza Eskolak eta 400 lagunetik gora parte hartu dute ber-tan. Osterantzean, datorren urtean “etxe-ko lanak, soldatapeko etxe-ko lanak eta zainketa” izango dira gai nagusiak eta horren inguruan antolatuko dira jardue-rak, berbarako, Fadura institutuko neska-mutilakaz martxan ipini duten “Etxeko lanak eta brikolajea” heziketa ekintza

Jakingarri

- **Abegi etxe berria** 2006ko udarako.
- **Etxeko lanak eta pertsonen zainketa** datorren urtean jorratuko diren gai nagusiak.
- **Gizarte Zerbitzuetako Larrialdietarako Protokoloa** diseinatu eta martxan jarri.
- **Informazio guztia:** www.getxo.net/eus/vivir/servsoc/noticias/noticia_igualdad_000.htm

92 milioi euro datorren urterako lazko aurrekontuagaz alderatuta **%6,2 igoko da** 2006ko Getxoko Udalaren aurrekontua



Kultur Etxearentzat 5.654.000 euro bideratuko dira 2006an

Getxoko alkate Iñaki Zarrakoa azaldu-tako-aren arabera datorren urteko aurrekontua-ren alderik nabarmenena zera da: *“inbertsio-ak zorrik hartu gabe egingo dira, aurtengo inbertsioen erdia zorrekin egin dugu”*.

Udalak berak 83.951.000 euroko aurre-kontua dauka eta gainontzekoa udal era-kunde autonomoen artean banatuko da: Kultur Etxeak 5.654.000 euro, Nagusien Egoitzak 4.962.000 euro eta Andres Isasi Musika Eskolak 2.071.000 euro.

Inbertsio alorreko hainbat egitasmok aurrekontuen zenbateko handia osatzen dute, batzuk aipatzearren: bide eta kaleak konpontzeko 4,6 milioi euro (adibidez, Portu Zaharrera doan bidea, pasealekua eta

bidegorria egiteko aurtun eta hurrengo bi urtetan 2.524.000 euro; etxebitzak eraiki-tzeko lurra erosteko 1.200.000 euro; Kirol Portuko arraun eta bela pabiloia egiteko 914.500 euro; zaborte- itxi, garbitu eta tranfer planta egiteko 2,1 milioi euro (%80 Europako Batasunetik) eta 12.000 euro konpostaje plantaren bideragarritasuna ikertzeko; udaltzaingoa-aren egoitza zahar-be-rritzeko 1.101.485 euro; Erromoko Na-gusien Etxea handitzeko 900.000 euro 2006an (437.500 euro 2007an).

Bestalde, aurtengo aurrekontuetatik ge-ratzen den diruagaz Kirol Portuko Acua-riumaz arduratzeko aukera ikertuko du Udalak. m

ROKODROMO BAT EGITEKO ASMOA DAUKA GETXO KIROLAK ERAKUNDEAK

Getxo Kirolak udal erakunde autonomoak rokodromo bat egiteko asmoa dauka Faduran. Lehen ere frontoien kanpoko aldean helduleku batzuk bazeuden, baina udal arduradunen arabera “gutxi erabiltzen” ei zituzten. Orain rokodromo frontoien eraikinen barruko aldean ipintzea aurreikusten dute, eta horretarako 70.000 euroko zenbatekoa gorde du Getxo Kirolak erakundeak.

PORTU ZAHARRAREN XARMA SUSTATU GURA DU GETXOKO UDALAK

Algortako xarma handiko txokoetako bat, Portu Zaharra, oraindik ez omen da nahiko erakargarria, eta bere xarmagarritasuna sustatu gura du Getxoko Udalak; bai alde urbanistikoan hobetzeko, bai alde arkitektonikoa berreskuratzeko. “Ez turismo masiborako leku bezala, baina bai ezagutzeko toki interesgarri modura”, argitu du Getxoko alkate Iñaki Zarrakoa. Horretarako ideia lehiaketa bat antolatuko du. Enpresak 30.000 euro eskuratuko ditu lekuaren erakargarritasuna sustatzeko ideak eta proposamenak egiteko, baina, batez ere Portu Zaharrerako bideak hobetzeko: kostaldetik doan errepidea (Ereagako bidearen proiektua idazten dabilta dagoeneko), Aretxondo eta San Nikolaseko bideetan.

ORAINTXE MEZULARITZA EKOLOGIKOKO ENPRESA LANEAN GETXON

Oraintxe mezularitza ekologikoko enpresaren zerbitzuak kontratu ditu Getxoko Udalak. Enpresak gauza handiak garraiatzeko furgoneta batez, motozikletaz (horietako bat elektrikoa, baina asmoa guztiak horrelakoak izatea da) eta mezuak bizikletaz banatzen ditu. Oraintxek 7 urte daroaz Bilbon zerbitzua eskaintzen eta orain dela hilabete batzuk Erromon zabaldu du bulegoa.



AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

aurreinskripzioa: apirilean / matrikulazioa: uztailan

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86



Smaran

“Andrazkoentzako etxea” eraikitzeko 30.000 euro emango ditu Udalak

Bilbo, Basauri, Ermua eta Gasteizko udalakaz batera Smara herrialdean (Tindouf) eraikitzen dabiltzan Andrazkoen Etxea egiten lagunduko du Getxoko Udalak. Eraikina altxatzeak 156.000 euro inguruko kostua dauka eta udal getxoztarrak 30.000 eurogaz parte hartuko du. Smarako 10.000 bat emakumerentzako zerbitzua emango da bertan, eta berabarako, emakumeen emantzipazioa eta politika; erakundeetan partehartzea sustatzea; eta jabekuntza, genero edota autoestimua lako gaiak jorratuko dira. Eraikinak hainbat areto edukiko ditu: hitzaldiak, trukeak, erakusketak antolatzeko; gimnasioa, bainu turkiarra, osasun eta higienarako gunea, eta haurtzaindegia. ^m

Ume saharauiak Tindoufen



GALEA
ASESORES, S.L.

AHOLKULARITZA
JURIDIKOA, FISKALA
LABORALA ETA KONTABLEA

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA
% 94 460 95 12

Monica Ortega > Vicente Ferrer Fundazioko ordezkaria

“Anantapurren (India) ikusitakoak ikusita ezin duzu jarrera epela eduki”



GGKEaren euskal ordezkaritzako arduraduna

“Getxotik mundura, mundutik Getxora” jardunaldien barruan **Monica Ortegak** “Getxoztar bat ukiezinaren artean” berbaldia eskaini zuen. **Vicente Ferrer** garapenerako **GKEak** Anantapurren (India) daukan proiektuan urte bi eman ditu eta **erdi dalit-ei** (ukiezinak) laguntzen, **irakasle** eta **Vicente Ferreren laguntzaile**. **Han bizitakoaz eta Fundazioaren ezinbesteko lanaz jardun** dugu.

—Zertan jardun duzu Anantapurren?

—Gaztelerazko irakasle nintzen, itzultzaile indiarrei eskolak ematen. Eurak umei aitabixien gutunak itzultzeaz arduratzen dira. Vicente Ferrerrek bere alboan lan egitea proposatu zidan, bere laguntzaile izan nintzen Anantapurreko Komunikazio bulegoan.

—Bizipen horrek zertan eragin du zugan?

—Bidaia guztiek aldatzen zaituzte, baina Indian egon ondoren, zehazki Anantapurren ostean, ezer ez da berdin, ikusitakoak ikusita ezin duzu jarrera epela eduki. Ikusten duzunean, egunero-egunero, Fundazioak pertsona horiek guztiak miseriatik ateratzen dituela, orduan konturatzen

zara proiektuak gauzatzen direla, badagoela benetako laguntza ematen duen erakunde bat. Pertsonalki, lehen haserrarazten ninduten huskeriei orain ez diet jaramonik egiten, pazientzia gehiago daukat; daukadanari garrantzi handiagoa ematen diot...

—Nortzuk dira dalits-ak edo ukiezinak?

—Hainbat arazo larri bizi dituzte batera. Po-breziaren arazo latza, lotu horri dalit izatea, arazo handi bi dira. Gizarteak dalitak arbuia-tzen ditu, herrixketatik baztertuta, urrun bizi dira. Indiar batek ikutzen baditu tenplu bate-ra araztera, garbitzera, joan behar du. Kasten azpitik daudenak dira. Lotu egiozu horri emakume jaio izana... Are gehiago, ezindua baza-ra. Fundazioak ukiezinai, emakumeei eta ezin-duei laguntzen die, bera barik 2 milioi pertso-na zein egoeratan egongo liratekeen ez dut imajinatu gura.

—GKEez mesfidati direnei zer esango zenieke.

—Haiek gure eskuetan daudela. A eta B tal-deak daude. A taldean Munduko Bankua eta

«**Zibermaratoia** daukagu **martxan**, **erronka 10.000 aitabitxi-amabitxi egitea da**»

Gobernuak daude, eta B taldean geu, hirita-rrrok. Kontzientziatu behar ditugunak Bkoak dira, A taldea ekonomikoki boteretsuagoa bada ere, B taldean gehiago gara, Bkoen dirua munduko gobernu guztiena baino gehiago da. Fundazioan konfiantza eduki behar dute. Norbanako bakoitza garrantzitsua da. 450 aitabitxi dauzkagu Getxon, pozik egoteko kopurua da kontuan hartuta hemen orain arte ez dela egon Fundazioaren ordezkaritzarik. Bizkaian 3.500 bazkide/laguntzaile daude eta Euskal Herrian 7.500.

—Zibermaratoi bat daukazue orain martxan.

—Abenduaren 18ra arte, eta 10.000 aitabitxi-amabitxi egitea da erronka, eta lortuz gero 50.000 lagun baino gehiago lagunduko genituzke. Parte hartzeko: www.fundacionvicenteferrer.org gunea, 902370377 edo 944230319 zenbakietara deitu, hilero 18 euro dira. ^m

Merkataritza arloko **GEHI hitzarmenaren** jarraipena eta dinamizazioa egingo du Hori-Hori enpresak



Helburua merkataritzan euskara gehiago erabiltzea du GEHik

Getxoko Udalak 26.854 euro ordainduko dizkio Hori-Hori enpresari “Getxo Euskal-duntzeko Hitzarmena: euskara merkataritza-ra” progamaren jarraipena eta dinamizazioa egin dezan. Bizitzaren alor desberdinetan euskararen erabilera bultzatzea helburu duen GEHI hitzarmena gazte elkarteakaz ipini zen martxan. Ostean, kultur eta kirol elkarteen txanda izan zen eta udalerriko merkataritza ere hartu du kontuan.

Getxoko 1.900 kometzioetan euskararen erabilera ezagutzeko inkesta egin zen lehenengo, eta 1.300 merkatarik erantzun zuten. Ze-ra ondorioztatu zuten: komertzioen %17k euskara ezagutzen zuten, baina %8k bakarrik

erabiltzen zuten; %60k euskarazko zerbitzua areagotzea onuragarritzat eta garrantzitsutzat jo zuten. Amaieran, 470 saltokik bakarrik sinatu zuten euskara sustatzeko GEHI hitzar-mena. Orain udalak programaren jarraipena eta berori dinamizatu gura du. Dendariei lanegunetan 7 orduko zerbitzua eskaini eta plangintza pertsonalizatuak osatu (lehen-tasuna edukiko dute GEHIren sinatzaileek, ostean Euskara Zerbitzuari noiz edo noiz eskariren bat egin dizkiotenek, eta gero mer-katari berriek). Zerbitzu hori eta beste egite-koen ardura urte baterako (beste urte batez luzatzeko aukeragaz) Hori-Hori enpresaren esku utzi du Udalak. ^m

ALBEREN OSPAKIZUN HANDIA HILAREN 10EAN GETXO ANTZOKIAN

Algortako Bertsolari Eskolak 25. urteurreneko jaia eta VI. Ahobien Gala ospatuko ditu abenduaren 10ean Getxo Antzokian, 19:00etan. Afrika Binbang abeslariak aurkeztuko du ekitaldia eta bi bertsolari sendik jardungo dute aurrez aurre: Enbeitiatarrek (Joan, Oihane eta Onintza aita-alabak) eta Paiatarrek (Fredri, Xabier eta Itxaso anai-arrebak). “25 urte, 25 irudi” bideo emanaldia ere ikusteko aukera edukiko du bertatazen denak. Eta zelan ez, Ahobi eta Balentin Enbeita sarien banaketa ere egingo dute.

BAPIGABONAK-ETAN IZENA EMATEKO EPEA HILAREN 9RA ARTE

Bizarra Lepoan Euskara elkarteak antolatzen duen Bapigabonak ekitaldian izena emateko epea zabalik egongo da abenduaren 9ra arte. 5-12 urte bitarteko ume euskaldunei begira prestatzen diren jarduerok abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra bitartean egingo dira Zabala eta Erromoko eskoletan (09:00-13:30). Izen-ematea Bizarra Lepoan elkartearen egoitzan (Karitate 1, 10. bulegoa, Algorta) egin beharko da eta bazkideentzat prezioa 55 eurokoa da, bazkide ez direnentzat 70 euro.

“GETXO: OROITZAPENAK” ARGAZKI ERAKUSKETA AREETAN

Getxoko antzinako argazkien erakusketa ikusgai egongo da Areetako Geltoki plazako karpapean. “Getxo: Oroitzapenak” erakusketa hilaren 9tik 18ra bitartean paratuko dute Areetan, hurrengo ordutegian: 11:00-14:00 eta 17:00-21:00. Nagusiek oroimena astintzen duten heinean, umeek ere gozamina har dezakete. Izan ere, erakusketa ipinita egongo den aste-akabuetan umeentzat puzgarriak eta jolasak antolatu dituzte (hilak 10, 11, 17 eta 18).

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia oroko-na
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bidebarri 27, behe eskui-na
ALGORTA

VIEJO

kopak eta giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

Rakel Olea > Leioa Abian taldekoa

“Ezker abertzalea legez kanpo uztean Leioako jende pilo bat ordezkaririk eta ahotsik gabe geratu da”

—Zer da eta nola sortu zen Leioa Abian?
—2003an sortu zen plataforma. Euskal Herriak, baita Leioak ere, bizi zuen salbuespen egoera eta eskubide urraketa ikusita eratu zen. Gero, ikusi zenean ezker abertzalea ezin zela hauteskundeetara aurkeztu erabaki genuen gu aurkeztea. Horretarako 500 sinadura lortu behar izan genituen (azkenean 713 lortu genituen). Udal hautes-

“Etxebizitza pribatua bultzatzen da eta bere prezioa lotsagarria da”

kundeetara aurkezteko prest geundenean Espainiako epaileek legez kanpo utzi gintuzten. Hala ere, aurkeztu eta 927 bozka jaso genituen.
—Nahiz eta legez kanpo egon lanean jarraitzen duzue, ezta?

—Bai. Udalari bere jardueren informazioa bidaltzeko eskatu genion, baina ez digute guztia bidaltzen. Hala ere, jarraipena egiten dugu eta proposamenak edo mozioak sarritzen ditugu Udalean. Gero herriari begira herriko taldeekin harremanean egoten saiatzen gara. Eta plangintza bat ere badaukagu urtean zehar egin beharreko jarduerekin.

—Herrian gauzatutako egitasmoei buruzko iritzia. Hasteko, Kultur Leioa.
—Ideia moduan ondo dago. Beharrezkoa zen. Baina, beno, lehenik eta behin ikusten duguna da lan kontratazio aldetik gauza



Argazkian, Rakel Olea

asko ez daudela batere argi. Eta bestetik, ekitaldien balorazioa egiterakoan, ikusten dugu gauza asko erdaraz egiten direla, programazioa edozein lekutako herri batean egiteko balioko lukeela. Ez dira kontuan hartzen hemengo berezitasunak. Programa bera Albaceten ere balioko luke.

—Etxebizitza politika...
—Marketingean eta propagandan diru asko gastatzen da, baina, gero benetan zenbakiak aztertuta, ikusten da eskaintza ez dela batere zabala. Leioan askoz gehiago bultzatzen da etxebizitza pribatua, eta dau-

katen prezioa lotsagarria da.
—Etorkizunari begira zer egiteko asmoa daukazue?
—Alde batetik, herriko taldeekin harremana sendotu. Eta gero badaukagu ikasturte honetan lantzeko gaiak; lan kontratazioarena, etxebizitzarena... Eta gero Leioakoak izateaz gain badaukagu Euskal Herriko perspektiba. Udalbiltzako kideak bagara, eta adibidez abenduaren 18an, Nekazal Azokaren egunean, EHNA agiriaren (Euskal Herriko Naziotasun aitormena) tramitazioa egingo dugu bulebarrean. m

Leioa Borroka Arteak

Judoa, taekwondoa eta jiu-jitsu egiten dabilta heriko **115 lagun**



Entrenatzen hasi baino lehen harrapatu genituen kirolari gazteak

Leioan borroka arteak eta Javier Cerrilloren izena lotuta doaz. Izan ere, Sakoneta kiroldegia martxan jartzearekin batera hasi zen Javier judoa txikienei irakasten, baita kirol honekiko maitasuna zabaltzen ere. Behin gaztetxoan artean zaletasuna erroturik hurrengo urratsa taldea eratzea izan zen. Horrela, orain 15 urte, Leioa Borroka Arteak taldea sortu zuten. Bere garaian karatea ere eskaintzen bazuten ere, gaur egun judoa, taekwondoa eta jiu-jitsu irakasten dute. Gainera, Javier taldeko arduradunak dionez, orain eskaintza oso zabala da alor guztietan, eta “kirola praktikatzan dutenak sakabanatuta daude”. Dena den, gaur egun 115 ikasle dira kimonoa astero janzten dutenak.

Badaude erasorako diren borroka arteak eta badaude defentsan oinarritzen direnak. Taldeko arduradunaren arabera kontaktuzko kirola izanagatik ere ez du zertan oldarkorra izan behar. “Agresibitatea eta bortizkeria ezberdindu egin behar dira; xakea bortitza ez bada ere, judoa baino oldarkorragoa izan daiteke. Judora datozen umeak ez dira agresibo bihurtzen, kontrakoa baizik; oldarkortasun hori bideratzen ikasten dute”.

Kirol aberasgarria da bai gorputza zein burua hezteko. Alde batetik, ariketa fisikoa bere osotasunean lantzen da indarra, malgutasuna eta bizitasuna hobetuz. Bestetik, arre-ta, kontzentrazioa eta gogoeta garatzen duen jarduera da. m

PINOSOLO BASOA BERRESKURATZEKO LANAK HASI DIRA
Legezko urratsak bete eta gero udalak Pinosolo basoa berreskuratzeko lanak hasi ditu. Udaletxearen helburua 2006. urtean basoa herritarrentzat prest egotea da. Horretarako, garbiketa eta hosto zaharrak kentzen hasi dira udaleko beharginak. Oinezkoentzako eta txirringaz ibiltzeko bideak atonduko dira, herritarrek basoa ezagutu eta inguruneaz gozatzeko. Pinosoloko basoa oso aberatsa da zuhaitzetan eta hegaztietan eta 60.000 m. koadro hartzen ditu. Beharrak irauten duten bitartean jendearentzat itxita egongo da berdegunea.

UDONDO GAZTETXEAK 5. URTEURRENA OSPATU ZUEN

Azaroan 18an bost urte bete zituen Udondo Gaztetxeak. Urteurrena ospatzeko gaztetxeak musika, kontzertuak, kalejira, antzerkia, malabareak, tailerrak antolatu zituen egun horretan. Alde batetik, biltzeko toki baten beharrak, eta bestetik, egungo egoera aldatzeko gogoak bildu zituzten gazte hauek Mendibile Gaztetxean. Hortik kanporatu zituztenean Udondon aurkitu zuten lokala.

IRTEERAK LEIOA MENDI TALDEAREKIN

Urtea bukatzeko abenduan bi ibilaldi proposatzen ditu Leioako Mendi Taldeak. Alde batetik, abenduaren 4an Errioxa aldera hurbilduko dira. Tobia herritik irtenda 1.207 m-ko Cerro Peñalva tontorra igoko dute ibilbide zirkularra osatuz eta Tobiara itzultzeko. Abenduaren 18an, urteko azken irteera, Arabako Baranbio inguruan goizeko ibilaldira egingo dute Lakide (606 m) tontorrera. Izan ere, egun horretan Leioa Mendi Taldeak Turroi Eguna ospatzen du eguerditik aurrera. Turroia dastatu eta zintzurra xanpainaz busti urte amaiera ospatzeko.

ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK eta INPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo

taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2

T: 94 463 00 45 - LEIOA

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07

e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Lutxana Arraun Elkarte

Ibaizabalgo taldeak **75 urte bete berri ditu**. Urteurren berezi hau ospatzeko taldean arraunean ibilitakoek jaia egin zuten hilaren 20an



la ehun lagun elkartu ziren urteurrenaren jaian. Harremanetarako: 94 467 14 44 edo www.lutxana-ae.com

“**Taldea**, berez zaharragoa da, XX. mende hasierakoa edo. Lehenago Txoriburu izena zeukan eta Club de Remo Ederra ere deitu izan zen. 1930an taldea legeztatzeke estatutuak egin ziren eta orduan hartu zuen gaur egungo izena”. Hau guztia Martin Marotok kontatu digu, gaur egun taldeko presidente denak. Bizitza osoa eman du taldean Martinek, “15 urterekin hasi nintzen eta 30 bete arte arraunean ibili nin-

tzen. Denetarik egin izan dut: entrenatzaila izan, zuzendaritzan egon...”. Izan ere, arrauna Martinen pasioa da.

«XX. mendearen hasieran ere estropadak antolatzen ziren Lutxanan»

Bada 75. urteurrena ospatzeko bazkaria antolatu zuten arraunlariek euren egoitzan bertan azaroaren 20an. Urte hauetan

guztietan taldean arraunean ibilitako lagunei deitu zieten eta ia ehun elkartu ziren ospakizun berezi honetarako egin zen paella erraldoia jateko. Esan barik doa giroa itzela, alaia, izan zela.

Gaur egun, 40 arraunlari dabilta Lutxanan eta Erandioko enpresa biren laguntza daukate bere jarduera aurrera atera ahal izateko: Arlan eta Primafile.

Zorionak eta urte askotarako, Lutxana! m



Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
D E I T U !

T. 94 467 17 13
F. 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Mobila
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

Artisautza gunea

Artisautza **erakutsi** eta ikasteko **espazioa** zabaldu dute herrian



Erandioko Erribera kaleko 67. zenbakian zabaldu dute lokala

Jesus Lizaso eta Jon Alberdiren ekime-
nez artisautzarentzako propio espazio berria
zabaldu dute Erandion. Ibaizabalen ertzean,
hango industria-nabe batean kokatu dute gu-
ne hau. “*Leku hau artisautzak merezi duen
erreferentziazko topagunea izateko sortu dugu,
artisautzarentzako espazio duin bat abian jar-
tzeke*”, azaldu digu Jon Alberdik, zeregin
hauetan 30 urtetik gora eman duen artisaua.
Forja lanak egiten ditu berak eta orain, hain
zuzen ere, han ipini dituzte ikusgai. Izan ere,
gune berri honetan kalitatezko artisautza la-
nak ezagutzera eman nahi dituzte eta horreta-
rako erakusketak antolatuko dira. Bestetik,
lanbide honetan hasteko ikastaroak ere anto-

latuko dituzte. “*Leku hau, leku bizia, sorme-
nerako gunea izan dadila ere nahi dugu, gure
ideiak eta hona etor daitezkeen guztienak gau-
zatu ahal izateko lekua*”, azpimarratu digu Al-
berdi jaunak.

Era guztietako artisautzari lekua egin nahi
diotela esan digu Jon Alberdik, ezjakintasun
handia dago eta. Artisautza ohiko azoketan
ikusten ditugun betiko produktuak baino
askoz ere gehiago da. “*Badago betiko artisau-
tza, zaindu eta mantendu behar dena. Baina
banguardiako lanak ere egiten dira gurean eta
jendeak ezagutu beharko lituzke. Guk guztia
erakutsi nahi dugu*”. m

Harremanetarako: 94 417 57 61

EUSKARAZKO PRODUKTUEN LUDOTEKA JOSU MURUETAN

Euskarazko musika, programa
informatikoak, filmak, aldizkariak, jokoak...
ederto pasatzeko denetarik egongo da
Euskara Zerbitzuak Josu Murueta kultur
etxean paratuko duen ludotekan. Adin
guztietako haur eta gazteei zuzendutako
ekimena da hau. Ludoteka abenduaren 17
eta 18an egongo da zabalik. Goizez
11:00etatik 14:00etara eta arratsalde
17:00etatik 19:30era. Bestetik antzerki
emanaldia ere antolatu du Euskara
Zerbitzuak. Biko Teatro taldeak *Larru
haizetara* sexuari buruzko lan dibertigarria
antzeztuko du hilaren 22an Altzagako
merkatuan. 11:00etan eta 20:00etan ikusi
ahal izango da antzezlanak. Gonbidapenak
Euskara Zerbitzuan bertan eska daitezke.



ABENDUAREN 23AN BERTSO JIRA ETXAHUN LEKUE ETA JON MARTIN BERTSOLARIEKIN

Urteroko legean, aurtengoan ere herriko eta
inguruko bertsozaleentzako gabonetako
oparia dakarkigu Berbots euskara
elkartek. Abenduaren 23an, barikua,
Etxahun Lekue larrabetzuarrarekin eta Jon
Martin oartzuarrarekin bertso jira izango
dugu Erandio Bokoako hainbat tabernetan
zehar. Iluntzeko 20:00etan emango zaio
ekitaldiari hasiera udaletxe ondoko La
Plaza tabernan eta bertsolariek eusten
dioten bitartean jarraituko dugu. Gainera,
Roberto eta Kepa trikitilariak ere bertan
izango dira giroa alaitzeko.

“OLENTZERO, NIK NAHI
NUKE... MAKILA MAGIKOA”
ANTZERKI LANA

Uribe Kostako Mankomunitatearen ekimenez “Olentzero nik nahi nuke... Makila magikoa” haur antzerkia ikusteko aukera egongo da abenduaren 16an, barikua. Herriarrentzako ikuskizuna arratsaldeko 18:30ean izango da eta doako sarrerak Hall-Kulturalean har daitezke. Bestalde, eskoletarako emanaldiak ere eskainiko dituzte, horiek ere Urko kiroldegian: 10:30ean Zipiriñe, Lemoiz eta Urdulizko eskolentzat, eta 12:00etan Ander Deuna ikastolako ikasleentzat.

EUROPAKO TXAPELA ERE
SOPELARA EKARRI DU
DAVID PEREZEK

European Tour of Bodyboard (ETB) txapelketa amaitutzat eman dute eta David Perez sopoloztarrak jaso du lehenengo saria, bera da beraz Europako bodyboard txapelduna, eta gainera ez da garaikur hori lortzen duen lehenengo aldia. Horrez gainera, pasadan urtean Munduko zirkuitua ere irabazi zuen, eta berori eskuratzen lehenengo euskalduna eta europarra izan ei zen. Bestalde, Europako zirkuituko emakumezkoetan Eunat Agirre ere primeran ibili da eta laugarren postuan geratu da. Zorionak bie!



Argazkian, David Perez

Gazte Informazio Bulegoa

Azaro amaieran zabaldu zituen ateak gazteen topagune eta informazio gune bihurtzeko asmoz



Gazte Informazio Bulegoaren inaugurazio jaia

Sopelako udaletxearen sarreran paratu dute Gazte Informazio Bulegoa (GIB). Azaroaren amaieran, hilak 24, zabaldu zituen ateak gazte sopoloztarren topaleku eta informazio zein aholkularitzarako gune bihurtzea helburu duen bulegoa.

Sopelako Udalak garatutako Gazte Planaren lehenengo egitekoetako bat izan da GIB, eta udal arduradunek azaldu legez, “*orain arte herrian alor honetan zegoen hutsunea betetzera dator*”. Sopelako Gazte Plana (2005-2007) Euskadiko II. Gazte Plana osatzen duten 5 lan esparru berdintsuetan oinarritzen da: Lana eta lan merkaturako sarrera, Hezkuntza eta Enplegurako

prestakuntza, Etxebizitza, Osasuna eta Gizarzte ekintza, eta Aisialdia eta gazte kultura.

GIBn 14 urtetik gorako gazteek hainbat gaien gaineko informazioa eta aholkularitza jasotzeko aukera izango dute, berbarako: etxebizitza, bekak, enplegua, atepekide-agiria eta ikasle-txartela egiteko aukera; jardunaldi, lehiaketa, lan eskaintza eta abarren berri jasotzeko; zine, kirol, argazkilaritza, bidaia... aldizkariak eta egunkariak irakurtzeko; eta hamaika gauza gehiago. Gazte informazio Bulegoaren ordutegia hurrengoa da: lanegunetan, 12:30etik 13:30era goizez eta 18:00etatik 21:00etara arratsaldez. ^m

Dorleta Zorrilla > txirrindularia

“Momentuz, txirrindularitzan jarraitu ahal izatea da etorkizunerako nire guraria”



Makina bat lasterketa irabazi ditu aurten Dorletak

Bi urte daroaz Dorleta Zorrillak Hotel Modus Vivendi/Ugeraga Sopelako txirrindularitza taldean. Balmasedakoak zortzi-bederatzi urte zeuzkanetik darabil txirrindula hankartean, Balmasedako txirrindularitza taldean eragin zion lehenengoz pedalari. “*Familia txirrindularitzan oso zaletua da, eta senitarteko baten bat ere bizikletan ibilitakoa da, horregatik txiki-txiki-tatik hartu nuen bizikleta eta 8 urteaz ere hasi nintzen lehiatzen*”, diosku 16 urteko txirrindulariak.

Bere gaztetasunean Dorleta Zorrillak lekua egin du andrazkoen txirrindularitzan, eta askok etorkizun oparoa izango duela aurreikusten du dagoeneko. Lineako proban Bizkaiko eta Euskadiko txapeldunordea, Bizkaiko eta Euskadiko txapelduna pistean, Espainiako Kopako txapelduna, Espainiako erlojupeko txapelduna, Eus-

kaldun garaikurra, beste 9 lasterketa... ez da, ez, makala Ugeragakoaren garaipenen zerrenda, eta txapel horiek guztiak aurten bakarrik bururatutakoak dira.

Emakumezkoen txirrindularitza “epel” Andrazkoen txirrindularitzaren egoeraren gainean galdetuta Zorrilak zera dio: “*Ez da txarra, baina ona ere ez; gero eta neskato gehiago dabilta, kadeteetan aurten berbarako 50tik gora izan gara; baina gainontzean... Nik uste lehen lasterketa gehiago egiten zirela. Eta zaletuak? gurasoak dina zaletu bakarrik*”. Etorkizuneko helmugen inguruan, apalki, bere guraria “*txirrindularitzan jarraitzea*” dela azaldu du, eta Somarribak egindako bide luze eta oparoan pentsatzeko goizegi dela, bera “*oraindik gazteegia*” delakoan dago, “*eta maila oso altua dago gainera hemendik kanpo*”.

LAIKAK
Taberna

Bentatu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94.6760328

ANDER DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikastola.net

JATETXE BEGETARIANO

- Eguneko menuak
- Asteburuetan menu bereziak

Sertutxa 4, Sopela
Telf. erreserbak: 645 732 991

4 bide
pinturak

RIPOLIN
BONDÉX
DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

VIII. IDAZLAN
LEHIAKETARAKO LANAK
ABENDUAREN 16RA ARTE
AURKEZ DAITEZKE

Urtero legez, Idazlan Lehiaketa antolatatu dute Berangon. Partehartzaileek Olentzerori gutuna idatzi beharko diote, euskaraz, eta abenduaren 16a baino lehen Berangoeta kultur etxera eroan. 1993 eta 1998 urte bitartean jaiotako berangoztarrentzako lehiaketa da eta eskutitzagaz batera egialeren izen-abizenak, adina, helbidea eta telefono zenbakia aurkeztu beharko dituzte. Sari banaketa urtarilaren 27an, 18:00etan izango da Berangoeta kultur etxean bertan, ipuin kontalariaren ikuskizunaren ostean. Hala ere, sariak banatuko dituzte partehartzaile guztientzat.

EUSKARA JARDUNALDIAK
GOZATZEKO AUKERA
BADAGO ORAINDIK

Euskara Jardunaldiak azken txanpan daude dagoeneko, baina oraindino badago non gozatua. Berbarako hilaren 2an Ludotekan Euskal Herriko Kulturaren gaineko lantegiak antolatut dituzte (ohiturak, mitologia, jokoak...), arratsaldeko 17:30tik 20:30ra. Hilaren 3an, Euskararen Eguna, Apika taldearen ipuin kontalariak jardungo dute, Kultur Etxean 18:00etan. Abenduaren 4an euskarazko produktuen Ludoteka paratuko dute udal pilotalekuan, 16:30tik 20:30ra.



Ludoteka ipiniko dute frontoian

Zahar Etxe berria

Datorren urte hasieran zabalduko ditu ateak



Edadetuentzako etxea egiteko lanak

Sabino Arana kaleko 24an dagoen eraikina ia goitik behera zaharberritu du Berangoko Udalak, eta berori izango da Jubilatuen Etxe berria hemendik aurrera. Hala ere, azken ikutuak falta dira oraindik, horrenbestez erretirodun berangoztarrek datorren urte hasiera arte itxaron beharko dute egoitza lehenengoz erabiltzeko.

Udalak 766.730 euro erabili ditu Zahar Etxea egiteko, 403 metro koadro dauzka hiru solairutan banatuta. Beheko solairuan kafetegi bat ipiniko dute, bertan ere egongo da zerbitzuen gunea. Horrela, goiko bi pisuek hartuko dute Zahar Etxea.

Gorputza zaintzeko gunek, aisialdirako

eta kirola egitekoak eta gune kulturalak edukiko ditu egoitza berriak. Bertan eskainiko den programan hurrengo jarduera eta egitekoak eskainiko dituzte, esaterako: erretzaile eta ez erretzaileentzako gune desberdinak, Podologia, ileapaindegia, liburutegia, eginkizun askotarako aretoa eta gimnasioa.

Eraikinak aurpegi modernoa edukiko ei du: barrutik kanpoaldea ikusten uzten duen baina barnekoik ezer erakusten ez duen beiratea, esaterako. Berangoztarren topagune berria izateko helburua dauka; baina hala ere, datorren urtea heldu bitartean erretirodunek ezin izango dute gozatu. Ez da asko geratzen, baina! m

Patxi Lazkano Basarte > tabernari, musikari, aktore...

“Egiten ditudan hauengatik, apurka zahartzen joan baino gaztetasunari lotuta jarraitzen dut”



Patxi Lazkano, Urdulizko bere tabernan

Azken 15 urteotan Urdulizko Basartena tabernako barra atzetik zerbitzatu dituen txikito, zurito, txakolinen... kontua ateratzea munduko matematikari burutsuenak ere ez luke lortuko. Patxi Lazkanok akorduan dauka taberna zabaltzekotan zebiltzala zelari erabaki zuten izena: “*Basarte da nire bigarren abizena, eta nire arrebak esan zidan Portu Zaharreko etxe batek Basartena izena daukala, polito iritzita halaxe ipini genion*”.

Barra atzeko orduetatik kanpo, Lazkanok abestu eta gitarra jotzen du *Estropajo* taldean. Orain dela 5 bat urte sortu zuten taldea, “*Larrauriri nik alokatutako baserrian musika talde batek saioak egiten zituen; gauean tabernatik irteetan hana hurreratzen nintzen gitarra jotzena; gero Kepa, Unai eta beste mutil batek Estropajo sortu genuen, baina orain Kepa Aristegik (baxua), Asier Abiok (bateria) eta hirurok osatzen dugu taldea*”. “Agro-punkeko” (herri punka) *Centros*

Comerciales maketaz Sopelana, Berango, Urduliz, Getxon... eskaini dituzte udan kontzertuak, baina maiatzera arte kantu berriak sortzen jardungo dute.

Aktore lanetan ere ibili da Lazkano, film laburretan eta iragarkietan: kaleratzeaz dagoen Mercedes furgoneta berrirako ira-

“**Historias de nuestra historia (ETB) teleailean Zamakola izango da**”

garkian, Patxi Urkijo edo Aitor Elorriagaren laburretan, *Historias de nuestra historia* (ETB) teleailean Zamakolarena egingo du, eta agian Lauaxetarena ere bai... Geldi egoten ez dakiela, ipurtarina dela aitortu du Lazkanok eta “45 urteaz, egiten ditudan gauzatxoengatik gazteek sentitzen eta pentsatzen dutenetik hurbil sentitzen naiz, aberasten naute, apurka zahartzen joan baino gaztetetasunari lotuta jarraitzen dut”. m



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2
ALGORTA



JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

HONDARTZAKO ZALDI
LASTERKETA HILAREN 18AN

Gorlizko Hondartzako Zaldi lasterketa entzutetsuak X. edizioa beteko du aurten. Gorlizko hondartzan hitzordua hilaren 18rako, domeka, ipini dute eta lasterketa 11:30ak aldera hasiko da. Orduan, zaldi proba ikusgarri bategaz eta domekako goiza hondartzako paisaiaz gozatzen pasa gura duenak aukera iztela edukiko du Gorlizen.

URDULIZEK HISTORIAKO
AURREKONTURIK
ALTUENETAKOA 2006AN

EAJ eta EAKo zinegotzi baten botoagaz, eta PPren eta EAKo beste zinegotzi baten abstentzioagaz onartu zuen Urdulizko udalbatzak datorren urteko aurrekontua: 5.237.000 euro inguru. Batez ere inbertsioen alorrak igo ditu 2006ko aurrekontuak: futbol zelai berria (884.950 euro), Kultur Etxea amaitzea (630.00 euro) edota frontoi zaharra bota eta berrirako proiektuak (253.000 euro).

POTEO EUSKALDUNA
LEMOIZEN HILAREN 16AN

Lemoizko Kultur Etxeak euskaldun guztiei deia luzatu gura die abenduaren 16an, barikua, Poteo Euskaldunera hurbil daitezen. Armintzako frontoia izango da elkartzeko aukeratu duten lekua arratsaldeko 7:15ak aldera. Beraz, giro euskaldunean eta tabernarik taberna osteratxo egiteko gogoak dituztenek badaukate nora jo.

GORLIZKO HONDARTZA

Datorren udazkenean hasiko dira lanak



Hondartzan dauden tabernak eraitsiko dituzte

Gorlizko hondartzak antzina zeukan itxura errekuperatzeko, eta bide batez, hondartza bera handitzeko egitasmoari datorren urtean helduko dio Gorlizko Udalak. Lanak hondartza garaia amaitutakoan, udazken aldera, hasteko asmoa daukate. Gorlizko hondartzak 16.660 metro koadro dauzka gaur egun eta egitasmoa gauzatuko denean 48.660 metro koadro inguru edukiko ditu.

Uztailean onartu zuen Espainiako Ingu-

rugiro Ministerioak behin betiko hondartzaren berreskuparen egitasmoa, baina azaro amaieran eman du jakitera zenbateko diru-laguntza emango zuen: 2006ko aurrekontuetatik 1,5 milioi euro bideratuko ditu. Guztira, egitasmoa aurrera eroateko gutxi gorabehera 7,1 milioi euro beharko direla aurreikusten dute arduradunek eta lan denak 2008rako edo amaituko dituztela espero dute. m

Abenduak 3 - 18

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Samuraiak: bestelako garaiak, bestelako kulturak.** IV Komiki Azokaren barruan. Erromoko erakusketa gela. Abenduak 5-urtarrilak 4.
► **Getxo: Oroitzapenak.** Antzinako argazki erakusketa. Areetako Geltoki plaza. Abenduak 9-18.

URDULIZ

► **Literatura nobel sariak: emakumeak.** Liburu erakusketa. Kultur Etxea. Hilak 12-31.

PLENTZIA

► **Vicente Lopez Hermoso-ren lanak.** Goñi Portal. Abenduaren 15era arte.
► **Etxeko botika eta landareak.** Goñi Portal. Abenduaren 16tik 30era.

SOPELA

► **Agurne Garciaren lanak.** Keramika erakusketa. Udaletxeko erakusketa gela. Abenduak 5-17.

► **Zirrimarra elkartearen lanak.** Margo erakusketa. Udaletxeko erakusketa gela. Abenduak 19-30.

ZINEMA

GETXO

► **Aupa Etxebeste!.** Euskara Jardunaldien barruan. Getxo Antzokia. Abenduak 3, zapatua. 12:00 eta 19:00. Sarrera: 2,60 euro.

► **Doraemon eta haizearen jainkoak.** Haur zinea. Komiki Azokaren ekimenez. Getxo Antzokian. Abenduak 4, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90 euro.
► **Tapas.** Zine-Kluba. Getxo Antzokian. Abenduak 7, eguaztena.

19:30. Sarrera: 2,60 euro.
► **Tierra de abundancia.** Cinema Paradiso. Azpitteludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Abenduak 9, barikua. 22:00. Sarrera: 2,60 euro.

► **Herbie a tope.** Haur zinea. Getxo Antzokian. Abenduak 11, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00.
► **La interprete** Zine-Kluba. Getxo Antzokian. Abenduak 14, eguaztena. 19:30.
► **Nadie sabe.** Cinema Paradiso. Azpitteludun

jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Abenduak 16, barikua. 22:00.

PLENTZIA

► **Largo domingo de noviazgo.** Helduen zinea. Bideo gela. Abenduak 9, barikua. 22:00.
► **Las hermanas enfadadas.** Gazte zinea. Bideo gela. Abenduak 10, zapatua. 18:00.
► **El gigante de hierro.** Haur zinea. Bideo gela. Abenduak 17, zapatua. 18:00.
► **Ya no somos dos.** Helduen zinea. Bideo gela. Abenduak 23, barikua.



► kantaldia

Benito Lertxundi Sopelan

Ez du aurkezpenik behar, eta ezagutzen ez duenak ez daki zer galdu duen! *40 urtez ikasten egonak* disko bikoitza kaleratu berri du Benito Lertxundik, 40 urteko ibilbidean sortu eta bizitakoen lekuko diren abestiak batu ditu bertan, baita orainsu sortutako beste berri bi ere: *Itsasoari begira* eta *Itoitz*. Gernikan eta Tolosan emandako kontzertuen garabazioa batzen ditu Benitoren lehenengo zuzeneko lanak. Eta zuzen-zuzen Orikoaren ahots, xarma eta gitarraz gozamina hartzeko aukera eskainiko dute Sopelako Euskara Jardunaldiek hilaren 9an.

• **Non:** Urko kiroldegia • **Noiz:** abenduak 9 • **Ordua:** 21:00

► **Esperando la Navidad.** Gazte zinea. Bideo gela. Abenduak 26, astelehena. 18:00.

► **Mi mejor amigo.** Gazte zinea. Bideo gela. Abenduak 27, martitzena. 18:00.

SOPELA

► **Las chicas del calendario.** Zinea generoaren ikuspegitik. Itzartu Emakumeen elkartearen ekimenez. Eleizalde 6. Abenduak 15, eguena. 17:30.

ANTZERKIA

GETXO

► **Comicas atribuladas buscan obra (con fines serios).** Luna Llena taldea. "Emakume bideak" zikloa. Getxo Antzokia. Abenduak 16, barikua. 19:30. Sarrera: 3 euro.
► **Igandeetan, piratek jai.** Haur antzerkia. Markelife taldea. Getxo Antzokia. Abenduak 17, zapatua. 18:00. Sarrera: 3 euro.

SOPELA

► **Cantervileko mamua.** Euskararen Astearen barruan. Udaletxeko karpa. Abenduak 3, zapatua. 18:00.
► **Olentzero, nik nahi nuke... makila magikoa.** Mankomunitatearen ekimenez. Urko kiroldegia. Abenduak 16, barikua. 18:30.

BARRIKA

► **Kiki eta koko pailazoak.** Euskararen Egunaren barruan. Liburutegia. Abenduak 3, zapatua. 11:30..

LEMOIZ

► **Marilo betilo.** Txobxongiloak. Armintzako Kultur Etxea. Abenduak 3, zapatua. 12:00.

GORLIZ

► **Jose Maria Carrere.** Ipuin kontalaria. Erakusgela. Abenduak 17. 18:00.

URDULIZ

► **Xurdin.** Iparralde kiroldegia. Abenduak 4. 12:30.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

Q V S
2 8 NIVERS RI
URTEURREN



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51


Taxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@euskalnet.net



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



**Munduko afariak,
afari mundialak!**
Cómete el mundo

Euskara, etorkinena

Euskararen VII. Jaiordunaldia
Azaroaren 24, 25 eta 26a

Euskara etorkinena

Euskara ikasteko ahalegina egiten dabilta atzerritik gurera bizitzera etorri zaizkigun hainbat lagun. Berri pozgarria da hori eta hemen bizi den askorentzat eredugarria. Lagun hauek Euskara Jardunaldietan euren jaioterrietako janariak euskaraz eman zituzten Algortako The Pipers tabernan egin ziren afarietan. Euskara euren ere badela demostratu ziguten.

Argazkiak: **Jose Mari Martinez “Bubu”**



Azaroaren 19tik 25era *Getxotik mundura, mundutik Getxora* garapenerako lankidetza astea egin zen udalerri horretan. Elkartasunaren berri emoteko modu bat da, halako kontuez noizik behin baino akordatzan ez garenongan sentiberatasun zantzuren bat sortzeko modu bat. Ez da nahikoa, noski. Ezer ez da nahikoa. Uribe Kostan talde ugari dabil elkartasunaren alorrean, bai kanpoko bai etxeko sufrimenduak arindu guran, eta instituzioek ere eurena egiten dute, baina ez dira inola ere ailegatzen ailegatu beharreko leku guztietara. Kaletar arruntongan, gainera, elkartasuna gainbehera ei dago. Lotan daukagu kontzientzia?

Borondate kontua

Elkartasuna Uribe Kostan

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Etorkinak direla eta...

Caritaseko Paco Castellsek dioenez, elkarre horrek ohi baino askoz lan handiagoa egin behar izan du azken urteotan, etorkin kopuruaren gorakada dela eta. “*Makina bat jendek etorkinei gehiegi laguntzea aurpegiatzen digu* -bai Caritaseri, bai erakundeei-, *berton jaiotakoan kalterako. Eta ez da hala*”. Castellesek azpimarratu egin gura du etorkinek ez dutela tratatu berezirik jasotzen. “*Oinarrizko errenta, adibide bat ipintzearen, berdin emoten zaie batzuei zein besteei, baldintza berdinetan badagoz. Etorkinek ez daukate lehentasunik*”.



Aurten zortzigarren antolatu dute Getxo Udaletxeak eta Mugarik Gabe GKEak *Getxotik Mundura, Mundutik Getxora* lankidetza astea. Horren helburu nagusietako bat, Unai Garcia Garapen Lankidetzarako udal teknikariaren esanetan, “*aurreko urtean Udalaren diru-laguntzaren bat eskuratu duten taldeen proiektuak agertzea da; garrantzitsua da herriarrei euren dirua zertan erabiliko den adieraztea*”.

Getxo nahiko udalerri aurreratua da garapenerako laguntza kontuetan: bere urteroko aurrekontuaren %0,7 horretara bideratzen du, “*eta hori nahiko kopuru handia da, udalak aurrekontu handia daukalako; 2006an, esaterako, 500.000 euro*

tan dagozenen beharrei erantzutea. Bigarren multzo horretan, duda barik, Caritas da indartsuenetako bat. Bertan lanean dabilen Paco Castellsen iritziz, “*bai elkarreok bai udaletxeetako beharginak lanez gainezka gagoz, hainbeste etorkin ailegatzearen ondorioz batik bat, baina gizarte-laguntzan dagozen beharrak aseta dagoz gixi gorabehera. Caritas, behintzat, ez dago boluntario faltan*”. Unai Garciak, aldiz, gure inguruko elkarre askoren ahuldadea nabarmendu du: “*Denek eduki dute beherakada, oro har*”.

Hutsune asko oraindik

Asko egiten da, baina askoz gehiago egin liteke. Edo egin beharko litzateke, hobeto

«Elkartasuna lantzen duten talde askok beherakada jasan dute azken urteotan»

inguru izango dira”. Diru horren zati handi bat, hain zuzen, alkarreok jasotzen dute. Garciaren esanetan, Getxo da EAEn garapenerako lankidetzara diru gehien bideratzen duen laugarren hiria, hiriburuaren atzetik.

Uribe Kostan, oro har, talde askotxok lantzen du elkartasunaren eremua. Batzuek hirugarren munduko lurraldeei laguntzea dute helburu, beste batzuek ber-

esanda. “*Dagozen arazoak ikusita, argi dago oraingo ahaileginak ez direla nahikoa*”, dio Unai Garciak. Paco Castellsek, berriz, honela erantzun digu erakundeen erantzukizunaz itaundu diogunean: “*Instituzioek ez dute nahikoa egiten, hori begibistakoa da, baina hala ere, zer da nahikoa egitea? Nik neuk aitortu egin behar dut gizarte-arloan aurrerapausu handiak egin dituen udalerrian bizi naizela, baina argi*



Arropa batzeko 37 eduki-ontzi daude eskualdean

dago enakundeei egin behar luketen guztia egingo balute, Caritas bezalakoak ez liratekeela existitu behar. Izan ere, gure asmoetako bat orain burutzen ditugun proiektuetako batzuk uztea da, instituzioek eurenaganatu ditzaten”.

Eta zelako osasuna dauka elkartasunak kaletar arruntan artean? Ez lar ona, gure

bil elkarre asko, norbanakoen diru-ekarpenak gero eta txikiagoak dira eta. Arazo orokorra da, jakina, ez Uribe Kostakoa bakarrik.

Uribe Kostan nahikoa lan txukuna egiten da elkartasun beharrean dagozenen premia larrienei erantzuteari dagokionez, baina oso urrun ei gagoz egiturazko des-

«Larrialdiei erantzuten zaie, baina urrun gagoz egiturazko desorekak konpontzetik»

berbakideen ustetan. *Getxotik Mundura, Mundutik Getxora* bezalako ekimenak, besteak beste, sentiberatasuna pizteko egiten dira. “*Lortu egiten den?*”, galdetu du Unai Garciak, “*ez dakit ba, gaxa da; jendearengan gai hauenganako nekea igartzan da*”. Azken urteotan, joera hori jasaten da-

orekak konpontzetik. Horrek betiko eztabaida dakar: noraino ailegatu behar da gizarte-laguntzan? Castellsen berbetan, “*huna indartuz ez da egiturazko arazoaren kontra borrokatzen. Giza-laguntzak handituz doazen heinean, zelako jendartea gagoz sortzen?*”. m

Arropa batu, behar dutenei laguntzeko

Berohi kooperatibak 2001ean ipini zituen Uribe Kostan arropa batzeko lehenengo eduki-ontziak, Getxon hain zuzen; harrezkerotik, ekimena zabaldu egin da -aurtengo urrian paratu dituzte ontziok Uribe Kostako Mankomunitateko zazpi herrietan-, eta dagoeneko 37 eduki-ontzi dago eskualdeko herri guztietan zehar banatuta, Erandion izan ezik.

Helburu bi

Berohi Caritasen eta Rezikletaren ekimenez sortu zen, arropa bilketaren bidez helburu bi lortzeko. Bata, ingurumenaren alde jotatzea; bestea, lana sortzea. Cristina Larrayoz bertako koordinatzaile komertzialak azaldu digunez, “*batzen den arropari esker, beharra emoten diegu lanpostu bat topatzeko zailtasunak dauzkateni*”. Bizkai osoan zehar dauzkate eduki-ontziak, eta Gasteizen ere bai.

«Leioan eta Getxon, batutako arropa kopurua asko handitu da urterik urte»

48 pertsonentzako beharra

Jantziak Zamudioko lantegi batera eroaten dira. Han 48 behargin dabilta: iraupen luzeko edota 45 urtetik gorako lanbakoak, etorkinak, seme-alabak bakarka zaindu behar dituzten emakumeak... Euren egoera dela-eta lana nekez topatzen duten pertsonak, beti ere. Eurak arduratzen dira arropari tratamendu egokia emoteaz. Larrayozek adierazi digunez, jantziak batzeko ekimena arrakastatsu dabil Uribe Kostan: “*Urterik urte asko hazten da batutako arropa kopurua. Leioan eta Getxon, 2004an, guztira bildutakoaren laurden bat jaso zen*”. 255.000 kilo inguru, hain zuzen ere.

Ekorropa, elkartasunezko erosketak Ekimenaren ondoretako bat Ekorropa izeneko dendak dira. Gurean ere badago bat, Algortan. Denda horietan, bigarren eskuko jantziak eros daitezke prezio onean, eta kalitateari uko egin barik. “*Elkartasuneko erosketa bat egiteko modu ona da*”, diosku Cristina Larrayozek.



Barinatxe elurpean

Jose Luis Díez

Ia 20 urte egin dugu atzera eta 1987ko irudi hotz hau berreskuratu gura izan dugu neguaren atarian gaudenean. Nekez ezkontzen dira gurean elurra eta itsasoa, oso lantzean behin gertatzen den fenomeno da. Gertakari bitxia eta aldi berean ederra, hunkigarria.

BARINATXE HONDARTZA, 1987
SOPELAKO LIBURUTEGIAK UTZITAKO ARGAZKIA

[berbetan]

Euskal Herriko ipurterre txapelketa egingo balitz, Kike Amonarrizek segurtatua edukiko luke leku bat podiumean. 44 urteko tolosarra da, filologoa ikasketaz eta soziolinguista lanbidez. Bere herriko udaletxeko Euskara Zerbitzuko buru izan zen, harik eta funtzionaritzaren segurtasunari uko egin eta soziologia-enpresa batera joan zen arte. Ordudanik beraren curriculuma eten barik gizendu da. ETBko *Txiskola* saioak fama emon zion garai batean, baina askoz lan gehiagorengatik da ezagun. Gehiegi, beharbada, sarrera-testu murritz honetan denak aipatzeko; gehiegi, era berean, guztiez itauntzeko. Horregatik, elkarriketan gibxi batzuk baino ez ditugu aipatu. Txisteak dira horietako bat, jakina. Izan ere, txiste asko entzun ahal izan zen UK-kook Kike aurrez aurre ezagutu genuen bazkaloeste gogoangarrian, orain urte bi (harrigarria bada ere, orduko hartan entzutea egokitu zitzaion gehienbat). Harrezkeroztik adiskide dugu tolosarra, eta hori da guretzat inportanteena, inongo curriculum potolotan agertu ez arren.

Kike Amonarriz

Hizkuntza jolasleku

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Dani Blanco**

—Saltsa askotan ibiltzen zara sartuta...

—Bai, bai, bai. Hala egokitu zait bizitzan eta nire erabakia ere izan da. Batzuetan zorabio pixka bat ematen du, baina orain arte niretzat zorte handia izan da jarduera diferenteak konbinatu ahal izatea, eta gainera denak gustokoak izatea.

—Filologia ikasi zenuen, baina askok uste dute soziologoa zarela...

—Hala da. Kontua da soziolinguistikaren alorra jorratu dudala. Nik, orain, soziolinguista naizela esaten dut. Euskararen corpusari (hau da, egiturari, ezaugarriei) ez dior sekula heldu, beti estatusaz (hau da, egoera soziolinguistikoaz) arduratu naiz.

—Zelangura, corpora ere landu duzu, ze-harka bada ere, sms-en hizkera eta halakoak aztertu dituzunean...

—Bai, baina beti erabileraren ikuspegitik. Esate baterako, sms-en hiztegia edo argota lantzerakoan, edo euskararen kalitatearen inguruko txostena egin dugunean, ez dugu hizkuntz-egituren ikuspegitik egin, baizik

eta horrek dituen ondorio sozialei erreparatuz, nolabait esateko. Alegia, nola hitz egiten duen jendeak, zergatik hitz egiten duen horrela, zer egin daitekeen gure hizkuntz adierazkortasuna hobetzeko... Eta sms-en kasuan, jolastu nahi izan genuen sortutako kode berriak euskaraz ere erabil daitezkeela eta euskaraz ere sor daitezkeela frogatzeko.

—Lan hori egin zuen taldetxoak -alegia, Asisko Urmenetak, Antton Olariagak eta

“Litekeena da datorren urtean telebistara itzultzea berriz”

zeuk osatzen duzuen Zazpiak Batman kolektiboak- bide bat zabaldu duela esan daiteke?

—Zazpiak Batman argota lantzeko sortu zen, Argia aldizkariak kaleratutako Mantxut sailaren inguruan. Gero, hitzaldiak ematen hasi ginen, hizkuntzarekin nola jolas daitekeen aditzera emateko helburuz. Uste dut dagoeneko dezente ari dela zabaltzen hiz-

kuntzarekin jolas egiteko aspektu hori. Jende asko ari da hizkuntzaren umore ahalmena lantzen, oso ikuspegi desberdinetatik. Andu Lertxundi maisua da horretan, Antton Olariaga izan den bezala. Hor daude, baita ere, Patxo Telleriak eta Mikel Martinezen antzerkia, *Wazemank* saioa... Guretzat bizi-filosofia da: hizkuntza komunikatzeko da, hizkuntzak alderdi ludikoa du, eta hori da daukan alderdirik inportan-

teenetako bat gainera. Umorerik gabe ezin da bizi, eta euskara ezin dugu fosildu.

—Badira urte batzuk telebistan egon zine-la. Itzultzeko asmorik?

—Litekeena da. Une honetan esan dezaket proiektu bat daukagula mahai gainean, eta asmatzen badugu eta zorte pixka bat badugu, datorren urtean, uda baino lehen, berriro programa bat egiteko aukera izango dut.



Programa horretan umorea jorratuko da, eta baita hizkuntzaren alderdi eta baliabide umoristikoak ere.

—Askok txisteen gizon modura gogoratzen zaituzte...

—Bai, eta jende askorentzat Kike Amonarriz *Txiskola* da. Hogeitaka urte daramatzat txistek argitaratzen Argian, txiste kaseteak hor daude, txiste liburuak hor daude eta *Txiskola* ere hor dago. Nire bizitzaren alderdi inportante bat da, eta oso gustukoa.

—Zergatik euskaldunoktxistek erdaraz kontatzen ditugu ?

—Txistek erdaraz sozializatu direlako. Egin kontu: *Txiskola*rekin hasi ginenean eta Argian txistek idazten hasi nintzenean, jende askok esan zidan “eske txistek euskaraz ez daukate graziarik”. Ezin da ahaztu txistegintzaren erreferentzia guztiak gaztelaniaz edo frantsezez izan ditugula hamarkadetan eta hamarkadetan. Txisteen indarra hitzetan dago, eta erabilerak ez badie indar hori ematen, grazia galtzen dute. Euskaraz, batez ere, pasadizoak kontatu dira, euskara indartsua zen lekuetan pasadizoak izan direlako nekezal kulturaren adierazgarri. Txistea gauza modernoagoa da, hiritarragoa, landuagoa, eta erdaraz funtzionatu du.

—Denok entzun dugu ehunka txiste, baina inork ez ditu haien asmatzaileak ezagutzen...

—Ez, asmatzeko unean ez direlako txistek. Momentuko burutapenak dira, edo benetako gertaerak. Txistek, txiste bihurtzeko, errepikapena behar dute. “Halakoari entzun diot, halakoari gertatu zaio...”, eta seigarren aldirako ez da “halakoari entzun diot”, “hau gertatu omen da” baizik. Eta gertatutako zerbait, edo norbaiten ateraldi bat, txiste bihurtzen da.

—Hori ikerkuta dago?

—Badaude ikerketa batzuk, ez hainbeste sorburuari buruz, baina bai mekanismoei buruz, sozializazioari buruz, eta batez ere txistetan transmititzen den ideologiari buruz, haien azpian dauden baliabide erretorikoei buruz...

—Euskararen Kalitatearen Txostenaz berba egin behar ezinbestean, azken aspaldian

horretaz asko irakurri eta entzun dugun arren. Hasteko: zenbat berbaldi emon duzu gai horren gainean?

—Orain ez nizuke esango zehatz zenbat, baina batzuk-batzuk bai. Eta hortik ere lanildoak sortu dira. Bata, Euskadi Gaztean hizkuntz-irizpideen inguruko ekimen bat abiatu dugu, gazte hizkera berritzaile bat lantze aldera. Oso interesgarria da, esatariekin beraiekin egiten ari gara eta hor dago gaztelaniaren erabilera nola mugatu, kanpotik datozen sms-ak

“Txistegintza nire bizitzaren alderdi inportante bat da, eta oso gustukoa”

eta abar nola landu, nola sortu hizkera berezi bat... Aurrerapausu nabarmen batzuk eman dira. Gero, hezkuntza alorrean gauza konkretu batzuk ere ateratu dira. Kezka zabaldu da, eta irakaskuntzan ahozketasunaren inguruko planteamenduak gero eta gehiago lantzen ari dira. Baina aldaketa baten atarian gaudela jakinda, kontuan eduki behar dugu aldaketa horrek hezkuntzaren gaur egungo egitura ukitzen duela, eta beraz ez dela, ez aise, ez agudo egingo.

—Ikastolak eta beste zenbaitzuk euskal curriculum proiektua lantzen dabilta. Aukera on bat izan daiteke zuek esaten zabiltzaten gauza hauek irakaskuntzan txertatzeko?

—Bai, azken batean guk beti defenditu dugu hizkuntza bat ikastea ez dela gramatika bat

komunek osatzen dute. Alde horretatik, uste dut euskal curriculumak izugarritzko bultzada eman dezakeela. Alegia, momentu honetan hego eta iparraren artean daukagu mugarik handiena, fisikoaz aparte, mentala ere bada, ez daukagu erreferentzia komunik.

—Hitzaldietan, zer kezka agertu ditu jendeak, batez ere?

—Irakasleen kasuan, nola lortu euskaraz egin dezaten, eta nola lortu euskaraz erraz egin dezaten erdarakadetara jo gabe. Euskalkien

arazoa ere hor dago, batua eta euskalkiak nola uzartu, nola erabili geletan, hizkera informala nola landu... Bolada honetan, berriz, gurasoekin hainbat hitzaldi ematea egokitu zait. Eta guraso erdaldunen artean bi kezka nagusi daude: nola lagundu etxeko lanetan eta dakiten euskara apurra erabili behar duten ala ez. Konturatzen zara oso modu errazean konpondu litezkeen zalantzak oso pisutsuak egiten zaizkiola jendeari, gutxiegitan hitz egiten delako gaiari buruz.

—Zer erantzun diezu ikasleek euskaraz egitea zelan lortu itaundu dizutenei?

—Bat: zenbat eta txikiagotatik hasi, hobeto. Hizkuntza-ohiturak errazago hartzen dira bi urterekin hamalarekin baino. Bi: irakaskuntzan egiten den lana irakaskuntzatzat kan-

poko faktoreekin lotu behar da, familia eta eskolaz kanpoko jarduerak batez ere. Motibazioa landu behar da, erabilerako aukerak sortu, eta gero, euskararen erabileradentsitate bat lortu behar da, musikarekin, telebistarekin, liburuekin... Hala ere, aldaketa soziolinguistikoak ez dira gauetik goizera gertatzen, prozesu historikoak dira.

—Irakasten den euskara mota ere ez da garrantzitsua?

—Bai. Zer euskara mota irakasten den, eta nola. Txostenaren ardatzetako bat da ikuspegi komunikatiboa lehenetsi behar dela ikuspegi gramatikalaren aurretik, batez ere motibagarriagoa delako, eta gure ustez, hortik hasita zuzentasuna ere askoz errazago eta hobeto txertatzen da.

—Hizkuntz egokitasunaren garrantzia azpimarratu duzue, zuzentasunaren gaintik...

—Bai. Batetik hizkuntza komunikatzeko delako batez ere, eta bestetik, bizi garen baldintza soziolinguistikoetan bizi garelako. Ezin genezake pentsa Getxoko gazteek orain dela 100 urte Aulestiko gazteek hitz egiten zuten bezala egingo dutenik euskaraz. Jabetu behar dugu oso tipologia diferenteetako familietatik datozela gazte horiek, oso ingurune erdaldun batean bizi

direla, eta dauzkaten *input* linguistikoak oso anitzak direla. Orduan, hasieran kreolera bat sortuko da leku horietan. Bi hizkuntza batera bizi diren lekuetan, hizkuntz jatorri desberdina daukaten pertsonen artean kalean hitz egiten dena beti da kontsentsuzko forma bat, eta kreolerak horixe dira hain zuzen. Kontua da: prozesua zer norabidetan ari da garatzen? Euskaratik erdarara, ala alderantziz? Hori dugu erronka.

(Martxa hartu du Kikek, eta hurrengo erantzuna galdera barik etorri da)

—Behin, Muskizen, hitzaldia bukatu eta ama bat etorri zitzaidan: “*Oye Kike, ¿qué pasa con el euskera? Empiezo a hablar y todos me corrigen, y todos diferente. Eso con el castellano no pasa*”. Euskara zuzentzen den hizkuntza bat da. Argot puntu bat sortzen bada, beti edukiko duzu norbait zuzentzen:

“Hori ez da horrela esan behar”. Beste kasu bat: Iruñeko irakasle batek esan zidan bazuela ikasle koadrilla majo bat, euskaraz egiten zuena, baina *euskañolez*, eta berak erabaki zuen hori zuzendu egingo zuela, euskaraz txukun egin zezaten. Gaur egun denek erdaraz egiten dute. Presio hori jasangaitz bihur liteke askorentzat, ez daukatelako behar adinako baliabiderik.

—Gehiegi zuzentzea ez da ona, beraz...

—Zuzendu behar da, eta arauak ezarri, baina jakin behar da non eta nola. Eta jakin behar dugu haur eta gazte askok interferentziak erabilita baino ezin dutela euskaraz egin, ez dauzkatelako baliabide horiek euskaraz.

—Interferentzia adibide bat “esan diot que está loco” esaldia izan daiteke?

—Bai. ^m

aldizkaria **etxean**
jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....

Kalea & zenb.....Herria.....

e-mail.....Telefonoa.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro ☐ beste kopuru bat

Kontu zenbakia (20 digito).

0000

0000

00

0000000000

UK Uribe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz

tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31

3 2 UK

UK 33



Eraikitze lanetan

Hankaz gora dago Uribe Kosta. Indusketa makinak eta garabiak eskualdearen jabe egin dira. Zubiak, errotondak, adosatuak, errepideak... denetarik eraikitzen dabiltza amaierarik ez duen etenbako jardunean. Harrigarria da sektore inmobiliarioaren ekintza, aho bete hortz uzten gaitu eta guk, sikan, ez dugu ulertzen nondik ateratzen den hau guztia egiteko beharrezkoa den dirutza. Aldi berean, gure paia saia ere izugarri aldatzen dabiltza. Orrialdeotan doatzuez eraikitze behar horien adibide batzuk.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



ADOSATUAK ERANDION



KORRIDOREA LARRABASTERRAN



ETXE BERRIAK SOPELAN



LANAK ALGORTAKO MARIA KRISTINA PARKEAN



TXALETA BARRIKAN



KAI BERRIA GETXOKO KIROL PORTUAN



MIMENAGAKO ERROTONDA



KORRIDOREA SOPELAN



LUR MUGIMENDUAK LARRABASTERRAN



ZUBIA LARRABASTERRAN



ETXEBIZTAK UDONDON, LEIOA



BASANTA INGURUA, GETXON



ERREPIDE BERRIA ARRIETARAN, SOPELA



KONPONKETAK GORLIZEN

zineeskola

Oskar Fernandez

Puntuazio zeinuak (III)

Aurreko zutabetxoa irakurri ondoren, baten batek zergatik gaur egun ebaketa zuzena baino gehiagorik ez den erabiltzen galde diezaioke bere buruari. Erantzuna sinplea da. Gaur egungo ikusleek zinemagintzan erabiltzen diren elipsi tenporalak eta espazialak planoen ebaketa zuzenen bidez adieraztea oso ondo ulertzen dute, eta ez dute ezer gehiagorik behar denbora luzea eta kokapena aldatu dela ondo ulertu ahal izateko. Puntuazio-zeinu honen bidez filmaren erritmoari bizitasun gehiago ematen zaio. Bestalde, fundidoen eta enkadenatuen erabilpenak erritmoa nolabait moteltzen edo apaltzen du. Zinemaren hasieran, hemeretzigarren mendearen amaieran, alegia, ezinezkoa zen planoen ebaketa zuzena erabiltzea, ikusleek ez baitzeukaten inolako ohiturarik ikus-entzuneke lengoaia irakurtzeko. Denboraz eta poliki-poliki ikusleek zinemaren hizkuntza, edo hobeto esanda hizkuntza honen bidez sortzen ziren testuak, barneratzen joan ziren. Denbora eta espazioarekiko egiten ziren aurrerapenak, trantsizioak, gero eta laburragoak ziren, baina jakina aurrekoak bezain adierazgarriak. Aurrerapen hauek ikusleen artean behin finkatuz gero normaltasun osoz erabiltzen hasi ziren zinema zuzendariak. Beraz, gaur egun eta aspalditik ikusleek ez dute ikusi behar bi ekintzen artean zer gertatu den haien arteko lotura ondo ulertzeko. Gaur barregarria irudituko zaigu, baina zinemaren hasieran ez zen ulertzen pertsona bat, demagun, bulego batetik atera eta hurrengo planoan hegazkin batean jesarrita egotea. Beharrezkoa zen pertsona hori kotxe bat hartzen eta aireporturantz abiatzen ikustea sekuentzia hori ondo ulertzeko. Honen ostean fundidoak eta enkadenatuak etorriko ziren eta akabuan ebaketa zuzena. 4

Gabonetarako pelikula

Olentzero eta Subilaren Lapurreta

dagoeneko **zinema-areto** komertzialetan

Bi urte joan dira Gabonetan Olentzeroren eta Anjeren berri eduki barik. *Olentzero, Gabonetako Ipuina* (Baleuko, 2002) animaziozko filmak azkenean jarraipena dauka aurten: *Olentzero eta Subilaren Lapurreta*.

Lehenengo hartan, Olentzerok eta Anje ikazkin gazteak Pirinioetako euren herritxo-an zentral hidroelektrikoa eraiki gura zuen gizonari aurre egin behar zioten. Oraingoan eski estazioa eraikitzeko basoa bota gura duen gizon maltzurra daukate etsai, eta gainera, Olentzerok umeek zelan jokatu duten jakiteko erabiltzen duen “subil magikoa” eta haurren gutun denak lapurtu ditu gizon bihozbakoa.

Oraingo honetan ere, Baleukok ekoitzi du filma eta Juanjo Elordik zuzendu du. Banaketa Barton Filmsen esku doa, Unai Iturriagak idatzi du gidoia eta Jose Ramon

«Pertsonaiak eta paiaaiak 3D formatuan egin dituzte»

Gutierrezek sortu du musika. Aurrekoagaz alderatuz, baina, hobekuntza nabarmenak antzeman daitezke, berbarako: eskuz mar-goztutako atzealdean aurrean pertsonaia animatuakaz osatu zen lehenengo emanaldia; eta bigarren honetan, bai pertsonaiak, bai



Filmaren kartela

paisaiak, 3D formatuan egin dituzte. Milioi bat euro inguruko aurrekontuagaz egin den filmak arrakasta izango duela espero daiteke, izan ere *Olentzero, Gabonetako ipuinak* 30.000 ikusle eduki zituen eta horrez gainera, 5 ikusletatik 4k euskarazko bertsioa aukeratu zuten. Hala ere, gaztelerazko bertsioa abenduaren 23an helduko da zinema-areto komertzialetara. Aurrerape-nagaz dator beraz, euskarazko animazio zinearen Gabonetako oparia. m

Ez galdu > Oliver twist euskaraz

Polanskiren azken pelikula euskaraz estreinatu dute



Charles Dickensen liburuan oinarritutako Oliver Twisten istorioa eroan du pantaila handira Roman Polanskik. “El pianista” filmagatik zuzendari onenaren Oscar saria eskuratu ostean Polanskik filmatzen duen lehenengo lana da Oliver Twist (2005). Horrez gainera, euskaraz ikusteko aukera ere egongo da. Barton Films da banatzailea eta dagoeneko (abenduaren 2an estreinatu zen) euskarazko bertsioa zinema-areto komertzialetan dago ikusgai. Umezurztegitik ihes egin ostean, Londreseko kaleetan nekatuta eta goseak hilik dabilela Artful Doger ezagutzen du Oliverrek, eta bero lo egiteko haren eskaintza onartzen du inuzente-inuzente. Fagin maltzuraren mende, harentzat “lan” egin beharko du Oliverrek. Barney Clarke antzeztuko du umezurtza eta Ben Kingsleyk Fagin gaizkilea.

Discos Crudos sarean

Leioako zigiluak www.discoscrudos.com gunetik saltzen ditu disko eta liburu berezituak



Argazkian, Anton Lopez, Discos Crudos-eko arduraduna. Harremanetarako: 600 211 035

Leioako Discos Crudos zigiluak sarearen birtartez saltzen ditu diskoak, baita musikagaz zerikusia daukaten liburuak ere. Anton Lopezek daroa zigiluaren ardura, “*Zodiacs talde getxoztarraren disko bat plazanatzeko sortu genuen, 2001ean, eunak proektutik urruntzen joan dira, eta nire gain hartu nuen erronka; eta postaz bidaltzen ditugu eskariak, sarean jartzea merkeagoa da, adb. lokal baten alokairu garestirik ez dugu ordaindu behar*”. Getxoko Cujo taldearen diskoak ere kaleratu ditu zigiluak. Bestalde, “*gogoko dudan musika eta taldeak bakarrik eskaintzen ditut, nik gogoko ditudanak,*

orokorrean rocka, zaharrak eta oraingoak: The Who, The Clash, MC5, Atom Rhumba, Cancer Moon, El Inquilino Comunista...”. Liburuak ere saltzen dituzte, berbarako Radio Birdman 70. hamarkadako talde australiarrari buruzkoa (www.radiobirdman.net). Gainera, beste argitalpen bi prestatzen dabilta: *Por favor matame* (www.porfavormatame.com), deskatalogatuta dagoen punkaren historia batzen duena elkarrizketa eta argazki berriakaz. Bestea, the Stooges taldearen gainean osatuko dute, Iggy Pop-en lehenengo talde aitzindariaren ingurukoa. Beraz, musikazaleek badakite nora jo. m

diskoak

M.Bemba
Salif Keita
Universal



Afrikak eman duen musikaririk handienetakoa da Salif Keita, Maliko musikaria. Orain arte bere ibilbide oparoan eta berak aitortu duen moduan, Keitaren diskorik alaiena eta dantzagarriena da *M.Bemba*. Izan ere, Afrikan arazo nahikoak daudela esan eta gero, maitasunaz mintzatzeko gogoa zuela adierazi zuen egileak. Kitarra, kora, lauda... disko akustiko ederra!

Metamorfosis
Doctor Deseo
oihuka



Arriaga Antzokian 2005eko urtarrilaren hasieran grabatutako kontzertua jasotzen du disko honek. Guztira Bilboko talde gogoangarriaren 25 abesti, eta jakina, tartean taldearen abestirik ezagunenak: *Corazon de tango, La chica del batzoki...* Bi ordutik gorako musika emnaldia. Formato bitan plazaratu dute Metamorfosis: DVD eta CD, eta CD formatoan baino ez. Gainera 48 orrialdeko liburuxka ere badakar.

Lorategi hibridoa
M. Aranburu Ensemble
Errabai Jazz



Urteak dira euskal kantagintzan estrenatu zela Miren Aranburu, urteak Iparraldetik jazz munduan lerrokatu zela eta urteak pasa dira musikari talde finkoarekin lanean dabilela. Taldea Mirenen ahotsean oinarritzen da eta berak olerkiak idatzi eta egokitzen ditu Jean Louis Hargous saxojoleak sortzen dituen musiketarako. Gaur egungo jazza aurkituko duzue disko honetan.

Norton Klub >

bakarkako lana



Mikel Gorosabel *Nortonek Kale artean* bere bakarkako lehenengo lana kaleratu berri du. David Otaegigaz batera Barne Record zigilua eratu eta

Norton Klub proiektuko lehenengo lana plazaratu dute. Nortonek azaldu legez “*musikari ekiteko gune ireki eta zabala Norton Klub*”. 60. hamarkadatik gaur egun arteko ibilbidean ezagututako tendentzia desberdinetara hurbiltzen da Mikel Gorosabel 5 kantuz osatutako estraineiko diskoan. Bartzelona hartu du inspirazio puntutat eta alboan izan ditu: Mikel Irisarri eta Aintzira eta Aitor Gorosabel. Kantuen berbak, ostera, Asier Serrano eta Norton berak idatzi dituzte. Bartzelonako Pako Romanen estudioan grabatu dute *Kale artean*, eta 9 eurotan dago salgai.

Informazio gehiago: www.nortonklub.com

Lehiaketa >

Bilbo Hiria

Oraindik ere, XVIII. Bilbo Hiria Pop-Rock Lehiaketan parte hartzeko aukera badago. Hile amaieran amaituko da bertan izena emateko epea, abenduaren 31n. Sari potoloak banatzen ditu lehiaketa honek: 34 euro, 2 diskoren grabaketa, musika tresnak eta kontzertuak beste jaialdi batzuetan. Apurka-apurka izen handia lortzen dabil, bai gurean, baita atzerrian ere: iaz 1.600 talde aurkeztu eta 10.000 ikusle gerturatu ziren.

Informazio gehiago: **944151306**

etorri
eta
ikus!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

Getxoko Andra Mari
Zerbitzu Estazioa

etxera
eroaten dizugu
gasoleoa

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km
Getxo / Tel: 94 430 15 00

uk

94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

[liburuak]

Vredaman, hirugarren lana

Ume baten ikusteko eta azaltzeko moduak
darabilzki Unai Elorriagak nobela berrian

Bi urte eta erdi inguru eman ditu Unai Elorriagak oraintsu aurkeztu duen *Vredaman* nobela berria idazten. Asmatutako goiburukoak bi izenei egiten die keinu: William Faulkneren *Mientras agonizo* liburuko Vardaman umeari, eta aita margolariaren koadroak kopiatzen zituen Vredaman de Vrie haurrari. Izan ere, hirugarren liburu honetarako algotarrak ume bat aukeratu du protagonistatzat: Tomas, liburuko lau istorioen lokarria. Algortako Villamonte auzoan lekutzen da kontakizuna, Maloena etxean:

“Istorioetako bat moldatu, eta umeentzako liburua kaleratzeko asmoa dut”

“Lehen gurean, badakizuenez, etxe guztiek izena zeukaten, Maloena leku izen historikoa da, baina etxea non zegoen ez dakit; gaztelenazko berbagaz daukan lotura gustatu zitzaidan”. Eta liburua, “ehuneko txiki batean”, baina autobiografikoa dela aitortu digu.

Ume baten berbakera bereziak eta ikuspegiak gidatuko du irakurlea, baina euskararen erabilera desberdinek ere badaukate oihartzuna: abadearen hitz egiteko modua, gazteenak, andra zaharre-



Argazkian, Unai Elorriaga

nak... Aurreko bi liburuakaz alderatuz, oraingo honek *“irakurlearekiko errespetu gehiago”* azaltzen duela diosku Elorriagak: *“Lau istorio goxo dira, hasi eta amaitu egiten dira; ez da hain ganberroa, ez dut irakurleagaz hainbeste jolasten, adarra jotzen...”*.


Bestalde, datorren udarako-edo gaztele-razko itzulpena prestatzen dabil orain. Alabaina, idazle gazteak beste asmo bat ere badarabil buruan: liburuko istorioetako bat, umearen ahotsagaz kontatzen dena, moldatu eta irudiakaz osatu ostean, haurrentzako liburu bat plazaratzea. m

liburuak



Auzoak
Urtzi Urrikoetxea
Susa

Azken urteotan olerkigintzan ibili eta gero prosarako jauzia egin berri du Bilboko idazle eta kazetari gazteak. Ipuin bilduma hau gida turistikoe-tan azaltzen ez den Bilboren kronika moduko bat da. Klase apaleko pertsonaien bizipenak, Bilboko auzoen deskribapen nostalgikoak...



Note book
Pako Aristi
Erein

Kazetaritza? Fikzioa? Saiakera? Poesia? Gatxa da beti Aristiren liburuak sailkatzea. Erregimen ekonomiko hiltzaile baten erdian horren lasai bizi garela ikusirik, harrituta eta ikaratuta ageri da idazlea. Erraz irakurriko baina nekez ahazten den liburu.

[kirola]

Asier Garcia > gorpil-aulkiko saskibaloia jokalaria

“Kirola egiteaz gain, erreabilitaziorako eta giza harremanetarako lagungaria eta garrantzitsua da”



Txurdinagan (Bilbo) jokatzen dute eta aurtien Ohorezko mailara itzultzea da Zuharraken erronka.

Laukizuzen formako zelaia, erdian zirkulua daukala. Alde estuetenetan, 3 metro inguruko altueran, saski bana. 5 jokalariz osatutako 2 talde, eta jokoak aurkariaren saskian baloia sartzean datza. 6,25 metrotik egindako saskiratzeak 3 puntu balio du. Ezin dira 3 bultzada eman baloia botarazi barik. Zein kirol den igartzea ez da gatxa, ezta? Gorpil-aulkiko saskibaloia. Oinezko saskibaloia berdin-berdintsua, arauetan ia berdina. Baina gorpil-aulkian doaz jokalaria eta horrek, gutxienez, jokalaria arrunt baten esfortsu, abilezia eta gogo handiagoa izatea adierazten du.

Gorpil-aulkiko Bilboko Zuharrak saskibaloia taldean dihardu Asier Garcia getxoztarrak. 24 urteko gaztea orain dela 5 urte hasi zen Zuharrak taldean jokatzen, *“kasu gehienetan legez kasualitatez hasi nintzen: kotxeko karneta atera eta kotxea egokitu behar nuen, egiteko horretan ezagutu nuen lagunak eman zidan taldearen berri, geroztik jokatzen dut saskiba-*

loira”. Garciak azaldu duenez desberdintasun batzuk badira: *“ezintasunaren arabera jokalaria bakoitzak 1 eta 4,5 bitarteko puntuazioa dauka eta jokatzen dabiltzan artean ezin da 14,5 puntuetatik pasa; puntuazioaren arabera ere aulkia gorago eta baxuago daroagu eta ondorioz batzuk pibotak gara, besteak antolatzaileak... Bestalde, aulkitik altxatzen bagara falta teknikoa da; horregatik, hankak lotuta eroaten ditugu; pausuak barik aulkia bultzadak daude, bi bultzada eta baloia bota behar dugu...”*

Kirola egitea eta onurak

Kirol guztiak legez, baina kasu honetan gehiago, “esfortsu handia” eskatzen duela dio Garciak, baina onurak ere: *“Goi-enborra asko lantzen da, baina kirola egiteaz gain, askorentzat errehabilitazioa egiteko eta mugimendua berreskuratzen laguntzen du; eta horrez gainera, oso garrantzitsua da harreman pertsonaletarako, zoritxarrez gure kolektiboan zailtasunak daude eta”*. m

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPON-
SERVITEC

Lacofris, s.l.

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUA

& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA



Sarrikobaso 15

Mikel Clemente > errealizadorea

“Kezkatu egiten nau pentsarazten diguten gauzenganako interes faltak”



Argazkian, Mikel Clemente

Zuek hau irakurri orduko, amaituta egongo da Zinebi film labur eta dokumental jaialdia. Mikel Clemente errealizadorea ere, lehenengo erantzunetan aditzera emoten duena baino lasaitxuago ibiliko da beharbada. Gaupasaz agertu zaigu, lana egunez ezin amaiturik. Izan ere, saltsa askotako perrexila da getxoztarra, bere ibilbide luzean zehar sortutako bideo-klip eta dokumental ugariek salatzen dutenez.

—Gauza askotan zabilta aldi berean...
—Kasualitatez, hiru gauza batera ateratzea egokitu zait. Zinebik nik egindako bideoklip bilduma emon behar du, DVDn atera du-dana. Horren biharamunean, Doctor De-seoren zuzeneko grabazioa aurkeztuko da, hori ere neuk egindakoa. Eta hirugarrenik, sei urte emon ditut dokumental bat egiten, eta non eta Zinebin aurkeztuko da, egun horietan ere bai.
—Oso lanpetuta zabilta, beraz...
—Jazotzen da batzuetan dena pilatzen zai-

zula momentu berean; gero, barriro dator amildegia.
—Amildegia?
—Bai, lanari dagokionez beti gagoz amildegian, ez dagoelako segurtasunik. Proiektu pertsonalez dihardut, ze, lanari dagokionez, zelan edo halan egiten da aurrera. Badagoz enkarguak telebistarako, publizitaterako... elikadurazkoak esaten zaien lan horiek. Lan pertsonalei dagokienez, sei urte emon dut *Embarcadero* dokumentala egiten, eta uste dut orain gogoia edukiko dudala beste

proiekturen bati ekiteko.
—Ideiarik bai?
—Ideia asko, baina ez naiz ezerregaz hasi serio, aipatu ditudan hiru gauza horiek amaitzen nabilelako hain zuzen.
—Dokumentalaren egoera ez da lar ona Euskal Herrian. Profesionalek erakunde eta telebisten laguntza handiagoa eskatzen dute...
—Ni ez naiz inoiz izan laguntza kontuetan aditua, beti ibili izan naizelako nahiko *underground*. Baina ez nioke errua laguntzei edo laguntza ezari hainbeste emongo. La-

«Ez naiz fikzioagaz sekula ondo konpondu, nire kazetari jatorriagatik beharbada»

guntzak derrigorrez emon behar direnean, zeure buruari horren zergatiaz galdetzen hasten zara. Eta ni benetan kezkatzen nauena zera da: pentsarazten diguten gauzenganako jendeak duen interes falta. Hori da dauka-gun kultura, eta ez da berez sortutakoa, batzuek hiritarrak ergelak izan gaitezen gura dute eta. Hala ere, gorakadatu bat igartzen dut dokumentalean, ea momentuko moda hutsa baino gehiago den.

—Fikzioa egitea pentsatu duzu inoiz?
—Bai, baina ez naiz fikzioagaz sekula ondo konpondu. Labur batzuk ekoiztu ditut, baina... Ikusle modura oso maite dut zine mundua, eta hiru making off egin ditut. Dokumental egile moduan ere liluratu egiten nau zine-egileen mundu txundigarriak. Baina egile modura, nire kazetari jatorriaren zama daroat beharbada. Begitantzen zait bizitzan badagozela hainbeste gauza begiratzeko, ikertzeko... Errealitateak fikzioa gainditzen du, eta hori holan izanik, niri lotsa emoten dit neuk asmatutako istorio bat defenditzen hasteak. m

Esakere > “Zulo bakarra dekon sagu, katuk laster atrapa”



Sagutxun kasun, argi dago zulo asko hoba direzela zulo bakarra baiño. Erderaz bere entzunte deku eztirela arrutza danak otzara baten sartu ber, otzara yausi ezkeron arrutza barik lotuko gara eta. Baia bentaje ete da beti otzara asko, edo zulo asko edo aukera asko aukite, bizitzeko gauza duztiten? Burun plan eta ilusiño asko dekozenak sarri galdu egiten dauz danak, eta bakarra baia argi eta sendo dekonak, horitxe eskuretuten dau. Zein ete da bide onena?

Esakera hau G. Garatek baturiko da eta beran “Atsotitzak” bilduman topako dozue.

Irudia: Gorka Vazquez

Gureberbakere69

GURE AZENTU (XI)

Testua: Xabi Bilbao

Orain dala gitxi ikusi dogu zelan **alkarturiko berba gehienak azentu koixten dauden** (ad., ipar + axe = ipárraxe) lehelengo berbako azkeneko silaban. Adibidek bere ikusi genduzen. Baia aietu baiño ez gendun egin, kasik adibide barik, zelan dagozen alkartuko berba batzuk azentu aldetik beste modu baten ahoskatuten direzenak. Horren adibidek emongo doguz gaur.

Batetik, badekuz gure berbakeran berba alkartu batzuk lehelengo berbako azken silaban azentu eron beharren, bigarren berbako lehelengo silaban daroenak: *astesántu, logüre, maspása, jotayántza, esnegáne*,... Honek adibidek erakusten dau-den lez, bigarren berbe berez azentudune danen pasaten da hau, horrek berbak beran azentu gordeten dauleko: *sántu, pása, güre, yántza, gáne*,... (baia gordezue burun berba alkartu gehienan kasu ez dala hau, Berbakere 35en ikusi gendun lez). Portakera hau erakusten daude sarri *árte, óste, óndo, aldi* eta *alde* berbak: *sutóndo, etzóndo, bazkalóste* (edo *bázkaloste*), *afalóste, goikálde, behekálde, áurrekálde, jatáldi, sasitárte*,...

Bestetik, azentu azken aurreko silaban iminte entzun leitezen berba alkartu batzuten, erderan azentukeran eragiñe daule pentsa leite, ze erderaz berba egikeran sarri erabilten direzen berbak direz gure ingirun: *artabúru, gautxóri, kakalárri, basé- rri, talobúrri, karnamárra*...

Beste alde batetik, azentu leku horretan darauden berba gitxi batzuntzeko ezin leite topa esplikaziñorik (ez berez daukela azenturik, ez erderan eragiñik): *atzámar, atzázal, otábar, artúrri*,...

Akabateko, badekuz ganera berba alkartu batzuk bapere azenturik ez daraude-nak, hau da, berba azentubakok lez erabilten direzenak (hau da, azentu koixten daude azkeneko silaban, bakarrik aitetuten direzenen, beste edozen berba azentu-bako lez). Honek direz batzuk: *kartayoko, artatxori, urtebarri, udebarri, yakingure, argizari, gauerdí, eskulan, Yangoiko, zorion*,...

Eta gaurkoz nahiko da. Agur!

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte T: 4302345

Algorta

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO

GIZONENTZA-KO MODA

Telletxe 5 ALGORTA T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10 T: 4910821 ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / basalbokoa

Buztana

saltsan

Hasteko, ondo garbitu buztana eta gantza kendu. Gero okela gatz-pipertu eta lapikoan oliba oliotan eta su bizian urreztatatu. Ondoren okela lapikotik kendu eta gorde. Olio berean barazkiak egingo ditugu; tipula, azenorioa, piper berdea eta porrua, guztiak ondo txikituak. Barazkiak urreztatzen direnean atzera gehitu okela eta koñiaka eta ardao beltza gehitu. Okela salda apur bat ere bota, baina eskura halakorik ez badaukazu, ur hutsa erabili. Hau guztia sutan edukiko dugu dena ondo egin arte. Majestica erabiltzen dut nik eta ordu erdi edo edukitzen dut sutan lapikoa. Gero, barazkiak baztertu eta txinotik pasatu saltsa egiteko. Ipin okela platerean eta gainetik salda bota. On egin! m

osagaiak (lau laguntzako)

buztana (kilo bat) • 3 tipula • 3 azenario • 3 piper berde • porru bat basoerdi koñiak • basobete ardao beltz • oliba olio • gatz • pipermina



itsaso arana / jolastokikoa

Verdejo

mahatsa

Rueda jatorri izendapena duten ardaoak egiteko erabiltzen den mahats zuria da *verdejo*. Duero ibaiaren bazterrak eta Gaztela osoa mahats zuri gozo honez josita daude.

Gure txakolinarekin gertatzen zen moduan, lehen oso ardao eskasak eta zatarrak egiten ziren *verdejoaz*. Gaur egun, berriz, teknologia berrien abaintalak baliaturik, arrakasta handia daukaten kalitateko ardao gazte zuriak egiten dira verdejoaz.

Mahats honek ematen dituen ardaoaren ezaugarriak azpimagarriena euren aromen indarra da, oso intentsitate handikoak dira eta. Bistara kolore hori orlegitsua berezia dauka. Garraztasun eta mingostasun ikutu bat uzten dute beti ahoan oso afurutatuak diren ardao hauek. Amaitzeko, esan behar da hotz zerbituz gero oso erraz edaten direla. m



[nora]joan

Usategi

kafetegia

Bista paregabeak gozatuz zeozer jateko zein tragua hartzeko leku berria



Borja Perez eta Julen Zulueta euren negozio berrian

Julen Zuluetak, hostalaritzan eskarmentu handiko algortarrak, eta bere lobak, Borja Perezek, laster-hilaren 11n- atzera zabalduko dute Usategi Kafetegia. Izen bereko parke ederrean dago lokal hau; mendian eskegita, Abrari begira. Handik dagoen bista paregabea da, zailantza barik eskualdeko ederrena. Bada, leku pribilegiatu horretan aurrerantzean eskaintza berria egongo da. “*Sukalde lane-tan Jon Agirre Mentsaka ibiliko da eta pintxo landu zonagarritz ornituko du egunero gure barna*”, azaldu digu Julenek. “*Foie, txipiroiak, odoloste gozokiak, gambak plantxan, kroketak, txuleta pintxoak, brotxetak.... gure sukaldean mimoz kozinatutako mokaduak eskainiko ditugu. Kalitatearen aldeko apustua egingo du-*

gu, baina prezioak ere zainduko ditugu, neurrikoak izango dira eta”. Hori jatekoari dago-kionez, baina edateko kontuetan ere ahalegin bera egingo dutela jakinarazi digu Julenek: “*Errioxako ardaorik onenak egongo dira jatekoari dagokion orduan laguntzeko. Ideia egu-neko edozein ordutan jateko beste modu bat eskaintzea da*”.

Goizetik ilundu arte zabalik egongo da Usategi. Jan, arrastian kafe bat hartu, afaldu edota gauzez tragua hartu ahal izango dira han. Beti ere itsasoari adi, leku paregabea. m

USATEGI KAFETEGIA
Usategi parkea, z/g - Algorta
T.: 94 460 64 13

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



Asado



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak nornberaren gus-tura
- Egunero karta berezia
- Gauzez dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?
herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!
Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA



VIEJO
kopak eta giro jatorra
Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

Zurikaldai
JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

KONTXI ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!
Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

GOZOLABEA
galdaretxe
• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoeirikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarrieriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO




Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

aldizkaria etxean jaso nahi baduzu



uk@aldizkaria.biz
94 491 13 37

[horoskopoa]

URA  (Abenduak 21 urtarrilak 19) Egiten dituzun plan guztiak bertan behe- ra gelditzen diren susmoa daukazu. Ilusio handiz itxaroren dituzunak ustekabe batek ezer ezean uzten ditu eguna heltzean. Ahalegindu zaitez gauzak hain kontrolpean ez edukitzen.	OTSOA  (Urtarrilak 20 otsailak 18) Pentsatu al duzu inoiz, bakarrik zure inguruan, zenbat ate zabalitzen eta ixten diren egunero? Egunerokotasunean itsu bizi gara sarri eta horrek ate zabaldu berrien beste aldeko aukera baliatzea galarazten digu. Ongi etorri!	ADARRA  (Otsailak 19 martxoak 20) Ez zarela horrelakorik egiteko gai? Lar gatxa dela eta ez zarela bat ere abila? Ahalegina egin al duzu? Egiteko batzuetan iaioak gara gara baina horrek ez du esan gura bestelakoak ezin ditugula egin.
AITZURRA  (Martxoak 21 apirilak 19) Berak ez dauka pentsatzen duzuna igartzeko ahalmenik. Esaziozu aupegira, argi. Horrela, azaltzen ahalegintzen, akaso zuk bera argiago ulertuko duzu. Zu nahastuta erdizoro bazabiltza, atera kontuak bera zelan dagoen.	HOSTOA  (Apirilak 20 maiatzak 19) Ezagutzen al duzu pertsona guztiz garbi eta aratzik? Eta fikzioan, guztiz-guiz on den pertsonairik? Olentzerok ere ikatza oparitu dezake! Ez eskatu lagun hurkoari zuk bete ezin dezakezuna, beraz barkaizu egindako hanka sartzea.	EGUZKIA  (Maiatzak 20 ekainak 18) Bat, bi, hiru... arnasa sakon hartu, birikiak guztiz bete eta lasaitu. Lanak zuk egingo zenituzkeen modura ez egiteak ez du esan gura txarto eginda daudenik! Garrasika hasten bazara gainera ez dizute ulertuko.
GARIA  (Ekainak 19 uztailak 18) Lantzean behin zoro moduan ibiltzea ez da txarra, osasungarria dela esan daiteke. Beti zabilzta hain serio, arduratsu... Nonoz mugaren gainean dantzan egitea dibertigarria eta aberasgarria izan daiteke, hori bai ez ahaztu muga non dagoen.	LASTOA  (Uztailak 19 abuztuak 17) Gabonetako oportetan ez dakit zein lan egin behar dut, matxuraturako ez dakit zein tresna konpondu behar dut, neure logelako oihanean entresaka egin, liburu bat irakurtzen hasi... Baten bat egiten hasi orduko urtarrilak zortzi!	IRATZEA  (Abuztuak 18 irailak 16) Kakatia zela aurpegiratu zenion aurreko batean. Aizu, norbanako bakoitzak gauza desberdinei die beldur, ala zu ez al zaitu ezerk ikaritzen? Zeri beldur diozun ez aitortzeak ez du esan gura ezerk ez zaitula izutzen.
META  (Irailak 17 urriak 16) Zeure gogoa ez datorrela bat bizitz egokitu zaizun garaiekin? Lasai, ez zara- eta hori pentsatu duen lehenengoa ez azkena izango. Hori bai hobe zenuke bi iturrietatik edatea, gaurokotik eta atzokotik, osagarriak izan litezke.	HAZIA  (Urriak 17 azaroak 15) Olentzero joan zaigu mendira lanera... Hator, hator mutil etxera... Olentzero begi gorri... Jesus, Maria, Jose... eta infermuko deabru danak! Ixildu barik kantan diharduzu egunotan! Hala ere, berandu da, Olentzerok ikatza ekarriko dizu!	NEGUA  (Azaroak 16 abenduak 20) Aurten ere loteria papelakaz bete dituzu polsikoak. Xahutu duzun guztia errekuperatzeko esperantzarik ba al daukazu? Jokatzen ez duenak ez dauka aukerarik, ez, baina nik irabazirik ez duzula lortuko egingo nuke postura!




mungia

oKINdegia


Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



LUMA aldizkariaren eskutik



Ezker eskuin

1. Balakatuak, ferekatuak. 2. Larruzko oinetako. Arrazoi. 3. Iparraldean, nezake. Arrantza ontzi txiki. 4. Bizkaiko herria. Garai. 5. Iridioaren sinbolo kimikoa. Urrea. Gipuzkoako hiria. 6. Euskal langile sindikatua. Barda. Boroa. 7. Bizkaieraz, Inola. (Infin.) Ukitu. 8. Letoniako hiriburua. Aluminioa. Musika nota. 9. Trebea. Sortu zintuena. 10. Koskadun. Naizen hau.

Goitik behera

1. Langile klasea. 2. Martxan jarriak. 3. Zirt edo ..., erabaki! Ikusmenaren organoa. 4. Asia Txikiko antzinateko hiria. Asiako estatua. 5. Nor pluralean. Amerikako estatua. Kanpo. 6. Zubereraz, ibarra, harana. Emakume izena. Uranioa. 7. Bos-tehun. Bokala. Iridioa. Behar, egiteko. 8. Uztarriz lotu. Mila. 9. Iparraldean, keinu. Eskoziako familia-multzo. Amerikako estatua. Iodoa.

Soluzioak									
I	N		N	N	T	U	S	T	A
A	K	A	S	T	U	S	T	A	
A		M	A		A	O	I	A	
L	A		L	A		G	A		R
I	K		U	N	A	L	E	Z	E
B		T	R	A	B	A		B	L
N	U		I	R	A	U	A		I
O	R		A		K	A	T	I	G
E	L		B	A	T	O	R	I	N
O	I	Z		A	K	A		V	A
L	A		Z	T	A	N	D	U	A

asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Getxon bizi da.
- Enpresaburuen buruko mina.
- Langileen alde eman du bizitza.

> Aurrekoaren erantzuna: Javier Clemente

> Irabazlea: **Iratxe Lopez (Berango)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

Zuri Haitz
Jatetxe vegetarianoa



Sertutxa 4, *Sopela*
Telf. erreserbak: 645 732 991



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria



Josetxu Etxebarriaren despedida, 1952

Getxok atezain gogoangarria eman zuen: Josetxu Etxebarria Aiestaran. 1920an jaio zen Algortan. Getxo Clubean hasi zen jokatzeko 1935ean eta urte bi beranduago Athleticera egin zuen salto. 1942an Bartzelonaren aurkako kopa finalean izan zen eta 1943an Athleticekin irabazi zuen liga. Estatuko selekzioarako bost alditan deitu zuten Frantzia, Alemania, Italia eta Portugalen aurka jokatzeko. Bada, bere futbolari ibilbidea amaitu eta hamar urte beranduago ezkondu zen Josetxo. Goiko argazkia, hain zuzen ere, Algortako bere lagunek antolatu zioten ezkondu aurreko agurrean aterata dago. ^m

Lehenengo lerroa: Inaxio Lauzirika, Rufino Aiestaran, Juan Otxoa, Richard, Jose Ramon Asua, Ignacio Zalduondo, Eduardo Argaluz, Txelo Etxeandia, Ignacio Bilbao, Angel Astorki, Pedro Benito, Pedro Mancisidor, Anton Basozabal, Felix Zalduondo, Eusebio Garcia, Txomin Gezuraga.

Bigarren lerroa: Jose Lizarraga, Josetxu Etxebarria.

Hirugarren lerroa: Fausto Basozabal, Joseba Arteta, Paco Garaizar.

Laugarren lerroa: Fermin Urbizu, Ricardo Agirre, Iñaki Zugazabeitia, Mario Quesada, Elier Alisert, Julian Maguregi, Jesus Lanz, Anton Deusto, Ignacio Zuazo, Isidro Madariaga.

Bosgarren lerroa: Dioni Elorriaga, Juan Dominguez, Ambrosio Igual.

IÑIGO LOPEZ DE ALDA > telebista aurkezlea

“Estresak jota ez naiz hilko”

Testua: **Ainhoa Lores**



Defini ezazu zeure burua berba bitan bakarrik.
Estresak jota ez naiz hilko ni.

Zein animalia gaz zatoz bat?
Koalarekin pareka ninteke, lo egitea ikaragarri gustatzen zait.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?
Komediarako baino ez dut balio.

Historiako zein pertsonaiaren papera miresten duzu gehien?
Beti izan naiz Daviden fan amorratua, David eta Goliathekoa. Miresteakoak ere badira historiako beste hainbat pertsonaia, esaterako, Che Guevara.

Zure jakirik gogokoena.
Arroza, tomate eta arraultza frijituarekin. Edo espagetti gozo batzuk. Indabekin ere zoratu egiten naiz. Egia esan, janariarekin flipatzen dut.

Aitor dezakezun bizio bat.
Esnea, kolakaua, gailetak, madalenak... Esnetan busti daitezkeen jaki guztiak.

Oporretara joateko lekuri proposena.
Pirinioak. Apur bat urrunera joateko aukera badago... Patagonia.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?
Lagunak ahaztea eta jendea sorbaldaren gainetik begiratzea.

Ezin zaitezke bizi...
Kirola egin gabe.

Zer berri gustatuko litzazuke entzutea albistegi batean?
Euskal Herriak bere etorkizuna erabaki dezakeela askatasun osoz.

Zein da gehien errepikatzen zaizun ametsa?
Hirian kaosa da nagusi, zentro komertzialean edozer har dezaket; ihes egiteko behar ditudan gauza guztiak.

Zure azken erokeria.
Lagan, gaua sartuta eta kriston maretoiarekin, ni bakarrik uretan sartzea surf egitera.

Ohitura txarren bat.
Leku guztietara berandu heltzea. m

LABURREAN — Bilbo, 1978. Telebistako aurkezlea. ETB1eko *Ikusgela* saioarekin ezagun bihurtu zen Iñigo Lopez de Alda. Umetan Bilboko La Salle ikastetxean ikasi eta gerora Leioako EHuko kanpusean gauzatu zituen kazetaritzako ikasketak, hauek amaitzeaz zegoenean Radio Vitorian praktikak egin zituen. Mutil benetan okupatua dugu bilbotar hau, izan ere, *Ikusgela* aurkezteaz gain, suhiltzaile ere bada eta eskalatzera ere sarritan joaten da. Bere amaren aldikarian ere kolaborazioak egin izan ditu eta hau gutxi balitz, nohizbehinka parrandaxoren bat botatzeko denbora ere badauka. Bestalde, bertsotan eta esku pilotan aritzea gustuko du. Bilbokoa den arren gaur egun Otxandion bizi da lagun batzuekin.

BAPIGABONAK



Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra
Del 26 de Diciembre al 4 de Enero

Norentzat: 5-12 urte bitarteko ume euskaldunentzat

Tokia: Algortako eta Erromoko eskoletan

Ordutegia: 9:00-13:30 eta irteera egunetan 17:00ak arte

Izen ematea:

Bazkideek izen emate epe berezia izango dute, epez kanpo izen emanez gero lehentasuna galtzen dute. Plazak mugatuak dira, eta lehenengo aurkeztutako eskabideek izango dute lehentasuna.

Izen emateko epea:

Bazkideek: azaroaren 21-28 // **Ez bazkideek:** abenduaren 1-9

Izena emateko inskripzio-orria bete behar duzue eta bulegora ekarri behar duzue:
Karitatea 1, 10. bulegoa (ordutegia: goizeko 11:00-13:00/ arratsaldeko 16:00-18:00) Telefonoa: 944 914 357

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



%

ez zaitez
geratu
baskepensiones-era
ekarpenak egin barik
BBK-k utziko dizu
dirua*
%0ko interesa,
%0ko komisioa eta
%0 UTB

*4.000 euroko gutxienezko ekarpenarekin.



baskepensiones

e.p.s.v.